



# AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
1.1. Justifikazioa .....	3
2. HELBURUAK .....	4
3. MARKO TEORIKOA .....	5
3.1. Gizartea eta irudia: bizitza pantailetan.....	5
3.2. Kontsumitzaileen eta merkatuaren jarrerak: joera ziklikoan, hausnarketarik ez. ....	5
3.3. Ikus-kultura eta eskola: ikus-kultura hezkuntzarako tresna bikaina. ....	6
3.4. Publizitatea eta estereotipoak: Yolanda Dominguez. ....	8
3.5. Publizitatea eta generoa: genero bakoitzari egotzitako elementu sexistak .....	9
3.6. Publizitatea eta gorputz-jarrerak: bertikaltasuna eta horizontaltasuna.....	10
3.7. Hezkuntza mota: Hezikomunikaziora bidean. ....	12
4. METODOLOGIA.....	14
4.1. Hipotesiak .....	14
4.2. Tresnak.....	14
5. LANAREN GARAPENA .....	16
5.1. Galdetegia .....	17
5.2. Esku-hartzearen diseinua eta aplikazioa .....	17
5.2.1. Gorputz- jarrerak: <i>Poses</i> .....	18
5.2.2. Foto- muntaia .....	22
6. EMAITZAK .....	25
6.1. Esku-hartzearen emaitzak .....	25
6.2. Hobekuntza-proposamenak.....	30
6.3. Ondorio orokorrak .....	31
7. BIBLIOGRAFIA .....	32
8. ERANSKINAK .....	36
8.1. Galdetegia .....	36
8.2. Zaldiaren eta behorraren irudiak (14. Galderaren erantzunak) .....	39
8.2.1. L.H-5 Zaldiak eta behorrak .....	39
8.2.2. L.H-6 Zaldiak eta behorrak .....	41
8.3. Grafikoak: galdetegiaren erantzunen batz bestekoak .....	43
8.4. Gaian sartzeko Power Pointa .....	54
8.5. Aztertutako iragarkiak .....	56

8.6. Etxetik ekarritako iragarkiak.....	57
8.7. Aukeratutako iragarkiak.....	58
8.8. <i>Poses</i> : iragarkietatik, gorputz-jarreretara.....	59
8.9. Foto- muntaiak.....	60
8.10. Foto- muntaien aurkezpenen transkripzioak.....	69
8.11. Eskolaren baimena.....	78

## LABURPENA

Ikerketa lan honetan, publizitateak ekoiztutako hainbat iragarkietan azaltzen diren gorputz-jarrerak aztertzearen bitartez, Amurrioko Virgen Niña Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei irudien alfabetizazioan trebatzeko aukera eskaintzen zaie. Horretarako, Yolanda Dominguez artista bisualaren *Poses* lana oinarritzat hartuta, esku-hartze bat diseinatu eta praktikan ipintzen da, bereziki modako iragarkietan agertzen diren balio eta giza kulturalki kutsatutako gorputz-jarrerak biluztea helburu duena. Horrek ikasleak genero rolekin lotutako estereotipoak kuestionatzera eta ikuspuntu kritiko batetik aztertzerara eraman ditu. Irudia aztertzearekin batera, ikasleek irudiaren sorkuntzan ere lan egin dute. Foto-muntaiaren bitartez, irudi ezberdinen protagonista nagusiak bilakatu dira eta gainera, irudi horiek erabili dituzte prozesuaren azken fasean eskatu zaien sormen lan bat burutzeko. Ikerketa lan honek erakutsi du ikasleek publizitatean, zein oro har hedabide ezberdinetan agertzen diren irudiak modu pasiboan kontsumitzen jarraitzen dituztela, honek etorkizunean ekar diezaiaketen kalteez ohartu gabe. Erronka honen aurrean, proposatu den esku-hartzearen bitartez, ikasleek irudiek norberaren identitatean, harremanetan, zein jokabideetan daukaten eraginaz ohartzen hasi dira eta hasiera batean oharkabe moduan jaso dituzten estereotipoak zalantzetan ipintzen hasi dira.

*Irudien alfabetizazioa, ikus-kultura, publizitatea, generoa, pentsamendu kritikoa*

In this research study, the students of Primary 6 of The Virgen Niña School of Amurrio have the possibility to improve their abilities in images literacy by the analysis of the attitudes which appear in different advertisements. For this purpose, it is designed and practiced an intervention based on the work of the visual artist Yolanda Dominguez called *Poses*, specifically aimed at nudging the body infected with the ideological and human ideals that appear in fashion ads. This has led students to question stereotypes related to gender roles and to analyze them from a critical point of view. Along with analyzing the image, students have also worked on image creation. Through photo montage, they have become the main protagonists of different images and have used these images to carry out a creative work that was requested in the final phase of the process. This research has shown that students in advertising continue to consume the images in a passive way, without realizing the damage it can suppose for them in the future. In front of this challenge, through the intervention which has been proposed, students begin to notice the influence of images on their own identity, their relationships, their behaviors, and they start to doubt the stereotypes they have received at the beginning unconsciously.

*Literacy of images, visual culture, advertising, gender, critical thinking*

# 1. SARRERA

Gaur egungo gizakiak bere inguruan gertatzen denaren berri hedabideei esker du: telebista, irratia, egunkaria, Internet ... masa-komunikazioaren euskarri material horiek dira egungo herritarrarentzat munduan gertatzen denaren narratzaile nagusiak.

Informazio-gizartea abiadura handian ari da hedatzen munduko bazter ezberdinetan; are gehiago gure artean, modu zorabiagarriagoan, Mendebalde postindustrializatu batean bizi izanda. Hedabideen jarria eta diskurtso mediatuen testu- artekotasuna dela medio, gizarte moderno honen ezaugarrietako bat informazioa informazioaren gainean da. Egunero jasotzen ditugun zeinuak, seinaleak eta bereziki irudiak kontaezinak dira.

Itxuraz, mundua gero eta hurbilago dago telebistari begira jartzen garenean. Alabaina, mundua geroz eta urrunagoa geratzen zaigula esango nuke, hitz eta bereziki irudi bakoitzaren atzean dagoen errealaren isla jakitea gero eta zailagoa egiten zaigulako.

Informazioa informazioaren gainean esan dut arestian, baina desinformazioa ere izaten da informazioaren gainean. Desinformazio hitza aipatzen dudanean, ikus-entzunezko alfabetizazio desegokiaren ondorioz hainbatetan jaso eta beste hainbatetan sortzen ditugun estereotipoei buruz hitz egiten ari naiz. Puntu honetara helduta, nire buruari galdetzen diot: *ba al dugu herritarrok lan-tresna intelektual nahikorik gure hedabideek zabaltzen dizkiguten diskurtsoak prozesatzeko, ulertzeko eta horren araberrako erabaki askeak hartzeko?*

Egungo alfabetatuari ez zaio eskatzen letrak bakarrik ezagutzea. Mundu modernoak erretorika eta argudioa eskatzen dizkio: poesia ulertzea, metafora ulertzea ... horra hor, jada ohikoa zaigun irudien bonbardaketa hau ulertzea. Beraz, irakurketa denotatiboak ez dira nahikoak, herritarrak konnotatiboak ere behar du izan. Nola, bestela, adibidez, publizitatea ulertu?

Yolanda Dominguez egungo komunikabideek irudiei ematen dien trataera ikuspuntu kritiko eta feminista batetik aztertzen duen artista bisuala da. Modako publizitatean zentratuz, bertan erakusten diren emakumezkoen zein gizonezkoen gorputz-jarrerek aditzera ematen dituzten balioak ebidentzian jartzen ditu. Izan ere, bere ustez, irudi horiek ez dute generoaren arteko berdintasunik ahalbidetzen, emakumearen rol estereotipatua are gehiago nabarmendu, baizik. Ideia hau aldarrikatzeko, kaleko jende ezberdinarekin -gehienetan emakumeak eta tartean umeak baita ere- ekintza sozial eta artistiko ezberdinak kaleratzen

ditu. Beraz, artistak aurretik aipatutako masa komunikabideen oihartzunaz zein sare sozialen indarraz ere baliatzen da, bere lanak aurrera eraman ahal izateko.

Irakurtzera gonbidatzen zaituztedan lan honek orain aipatutako artista bisualak zabalduko lanetako bat izango du oinarri. Helburua Amurrioko Virgen Niña eskolako 6. mailako ikasle talde batentzat gaur egungo publizitateak naturaltasunez publikatzen eta zabaltzen dituen genero ezberdinei egokitutako gorputz-jarreraren inguruan hausnartzeko proposamen bat diseinatzea eta aplikatzea izango da.

Proposamenak hurrengo metodologia jarraituko du: ezer baino lehen, ikasleek publizitatearekin zein generoarekin harreman estua izango duen galdetegi bat beteko dute. Galdetegi honetako erantzunek aditzera emango dute zelakoa den eskola honek ikus-kulturaren irakaskuntza zein ikaskuntzari ematen dion trataera. Jarraian, Yolanda Domigúezen *Poses* lana laguntza baliabide moduan harturik, ikasleek publizitateak emakume eta gizonezko gorputzei ematen dien erabilera ezberdina ikertuko dute, horiei egotzi dizkieten estereotipo nagusien berri izateko eta era berean, horren inguruan eztabaidatzeko. Azkenik, ikasleei euren gorputz- jarreraren esperimendazioaren emaitza izango den azken produktu sortzaile bat burutzea eskatuko zaie, orain arte irudiaren alfabetizazioaren inguruan ikasitako guztia praktikan ipini dezaten.

Ikerketa lan honen helburua, ez da ikasleak ikus-kulturaren soilik janztea eta trebatzea izango, hedabideek –kasu honetan publizitateak- eskaintzen dizkigun generoari inposaturiko irudi ezberdinen inguruan kritikotasunez hausnartzea baizik, ikasleak irudi horien hartzaile eta baita ekoizle nagusiak izango direlarik.

## 1.1. Justifikazioa

Gaur egungo ikasleak ikus-entzunezko teknologien eta beroriek garraiatzen dituzten eduki sinbolikoen kontsumitzaile handiak direlakoan nago, bai eskolan zein gizartean ere. Aitzitik, jarrera kritiko zabalik gabeko kontsumoa praktikatzen dutela esango nuke: internet darabilte, telebista darabilte ... baina ez beti jakinda zein mundutan barneratzen diren, ez beti jarrera eta ikuspuntu beregain eta kritiko batetik abiatuta horietara.

Esperientzia pertsonaletik hitz eginez gero, badira 3 urte Ikus-entzunezko gradua burutu nuela eta oraindik ere, Internet bidezko, paperezko nahiz bestelako formatuetan komunikatuak diren mezuak egokiro deskodifikatzea eta interpretatzea zaila egiten zaidan lana da. Nire egoera horrelakoa bada, imajina dezagun heldutasunera bidean dauden Lehen Hezkuntzako ikasle horiena zelakoa izan daitekeen.

Nahiz eta eskolak kontsumo hori bermatzeko ikus-entzunezko baliabideak eskaintzen dizkien, ez dut uste irudien alfabetizazioaren gaineko hausnarketa egiteko aukerarik ematen dienik. Hau azpimarratu beharreko gabezia delakoan nago, eskolatik jasotzen dugun heziketak trebetasun eta abilezia komunikatzaile nahikoa izatea ahalbidetu beharko ligukeelako, jada txikitatik. Urte hauetan barneratzen dugun ikaskuntza eta ezagutza gizarteko erronkei behar bezala aurre egiteko baldintzatzaile garrantzitsuak izango dira.

Erronka horien artean, generoan bereziki zentratzea erabaki dut, *PRACTICUM IIIa* egindako eskolan sumatu dudan horren inguruko lanketa falta ez ezik- egun Gasteizko Magisteritza eskolan burutzen ari naizen Gorputz Hezkuntzako minorrari ere esker, gorputzaren erabilerak alderdi komunikatiboan, harremanetan, zein generoaren trataeran uste baino eragin handiagoa duela frogatu baitut.

Amaitzeko, irudia eta generoa nolabait elkar batzen duen ikerketa lan hau ni neu irakasle eta pertsona modura ere hezten jarraitzeko baliagarria izatea espero dudala esan beharra dut.

## 2. HELBURUAK

Publizitateak genero bakoitzari egokitzen dizkion perfekziozko irudia erlatibizatu beharko legokeela ulertuz, lan honen helburua ikasleek -proposatu zaien esku-hartzearen bitartez- masa komunikabide honek emakume eta gizonezko ezberdinen gorputz-jarrerari ematen dien erabilera ikertzea izango da. Hori dela eta, errealitatea eta gure irudi propioa hautemateko dauzkagun moduetan publizitateak duen inpaktuaren aurrean jarrera kritiko bat hartzea eskatuko zaie ikasleei.

Hauek dira, zehatz- mehatz, lan honek izango dituen helburuak:

1. Iragarki ezberdinetan agertzen diren gorputz-jarrerak baliabide moduan erabiliz, ikasleak irudiaren alfabetizazioan trebatzea eta ikus-kulturari zor zaion garrantzia ematea.
2. Publizitatea bezalako masa komunikabideen aurrean ikasleek jarrera aztertzaile eta kritikoa erakustea; hots, irudiak begiratzea baino, irudiak modu aktiboan ikustea ikastea.
3. Ikasleek publizitateak zein gure inguruneak markatzen dituen gorputz eredu kulturalen berri izatea eta gorputz eredu horien eraikuntza honetan sexu, arraza, klase soziala, adina, edertasun modeloa, edo akastunen bazterketak nork bere identitatearen eraikuntzan duen eragina ulertzea.
4. Ikasleek emakumezkoen eta gizonezkoen rolei egokitutako estereotipoen inguruan hausnartzea, gorputz-jarrerak bere gain daramatzaten konnotazioetan eta gizarte patriarkatuaren ezaugarrietan sakonduz.
5. Ikasleek euren gorputz-jarrerari ematen dizkieten konnotazio ezberdinekin jolastea, beti ere zentzuaren eta kritikotasunaren haria galdu gabe, askatasunari eta aniztasunari bide emanaz.
6. Ikasleek euren gorputza bizitzea, ezagutzea, maitatzea, ulertzea eta berari buruz zein besteen gorputzei buruz egiten dituzten balorazioez kontzienteak izatea.
7. Ahozko hizkuntzaz gain, gorputz-hizkuntzaren erabileraren garrantziaz ohartzea eta publizitateak honetan oinarrituta erabiltzen dituen estrategiak eta baliabide formalak (kolorea, konposizioa, argiztapena ...) ezagutzea.
8. Publizitateak gizarte kapitalistaren baitan sorrarazten dituen beharizanaren, benefizioaren eta atsegingarritasunaren arteko desberdintasunen lerroa zehaztea.



### 3. MARKO TEORIKOA

Lanari hasiera emateko, ezinbestekoa da azterlan honetan zehar ikerketa-objektu izango diren kontzeptuak aldeztu aurretik definitzea, ikus-kulturak komunikabideekin eta baita hezkuntza arloarekin daukan harremana ulertzeko.

#### 3.1. Gizartea eta irudia: bizitza pantailetan.

Gure gizartea definitu beharko bagenu, gizarte moderno bezain *likido* (Bauman, 2003) batean bizi garela esan genezake; ideiak, ametsak, egoerak, usteak, inpultsoak ... irentsi egiten ditugu modu bisual eta azkar batean. Zaharkiturik geratu nahi ez duen orok, sistema honi jarraitu beharko dio, informazio guztia desfasatuta geratuko baita minutu gutxi batzuk pasa eta gero.

Jokabide hau askoz ere esplizituagoa da, horren adibide gisa irudiak hartzen baditugu. Mirzoeffek (2003) dioenez, gure bizitza pantailetan garatzen da. Etengabeko zainketa bisual baten menpe bizi gara, non egun oso erraza egiten zaigun gure burua une oro grabatzen ari den kamera bat aurkitzea; bai bus geltokietan, bai merkataritza-guneetan zein edozein kutzazain automatikotan ere. Kanpoko kamera bat ez bada, gu geu gara -*Instagram* edota *Facebook* bezalako sare sozialen erabileraren bitartez- gure burua besteoi erakustean arduratzen garen lehenak. Begira non, irudia han.

#### 3.2. Kontsumitzaileen eta merkatuaren jarrerak: joera ziklikoan, hausnarketarik ez.

Teknologia berrien etorrera masiboa dela eta, denbora gehiago eskaintzen diogu hedabideen kontsumoari. Horren ondorioz, Euskal Herriko ikasleen kontsumo mediatikoa aldatzen ari da: kontsumo hau gero eta gehiago banan-banakako jardura bilakatzen ari da, TB eta Interneten erabileran, bereziki (Basterretxea, Idoiaga, Ramírez de la Piscina, Zarandona, 2007).

Datu hauek aintzat hartuz gero, esan daiteke Euskal Herriko neska-mutikoek ez dutela ekintza hau gurasoekin edota neba-arrekin sozializatzen. Horrek, beraz, askatasun sententzia eman al diezaieke. Kontsumo-erraztasun horrek, *kontsumo akritikoa* deritzona bultzatu dezake (Basterretxea et al., 2007: 64).

Umeei entregatzen diegu telebista edo telebistari entregatzen dizkiogu umeak? Gazteek ustezko naturaltasun faltatu baten barruan ikusten du bere pantaila aurrean eskaintzen

zaiona. Baina, zergatik? Agian, gogokoa duelako; behar bada, modan dagoelako edo bestelako edukirik edo denbora-pasa alternatiborik ez duelako eskura.

Eskolan, azkar, arin, ikastera behartzen gaituzte, behartzen ditugu geure buruak, prozesamendura doan atea zabaldu ere ez dugula egiten. Horregatik, gizaki guztiek pentsatzeko gaitasuna duten arren, guztiek ez dute modu kritikoenean, zuzenean eta eraginkorrean egiten (Victor, 2018). Ikasleek kontsumitzen duten eduki horren guztiaren kalitate maila ezagutu beharko lukete; hau da, kontsumo kritiko baten alde egin. Honek haurrak ikuspuntu instrumentala gainditzera eraman beharko lituzke; hau da, hedabideetarako heziketaz harago joan, etika komunikatiboan sakonduz eta komunikabideen bidezko heziketara hurbilduz. “Sagua eta teklatura nola erabili behar diren bezain garrantzitsua da zertarako erabili dezakegun erakustea” (Basterretxea et al., 2007:21).

Modu berean, eskolaz kanpoko testuinguru ezberdinetan nagusitzen den joera berdina izaten da. Egungo merkatuak irudi bat zabaltzen du eta prozesua hurrengo da: irudi hori bereganatzen dugu, nork irudi horri bere irudimenean duen konnotazio berri bat txertatzen dio eta berriz ere, mundura partekatzen du (Martín Saura, 2011). Bien bitartean, merkatua jokaera honetaz baliatzen da, bere interesekoa izan daitekeen irudi berri horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Jokabide hau aintzat hartuz gero, egungo herritarrak eta bereziki umeak *prosumidor* -etzat jaso ditzakegu. Prosumidor hitza -ingelesez *prosumer* esan nahi duena- ekoizle eta kontsumitzaile hitzen fusiotik datorren kontzeptua da (Islas, 2009: 27). Hau esanda, egungo umeek edukiak kontsumitzen eta sortzen dituztela ondoriozta daiteke, beti ere, jokabide zuhurra, etiko eta kritikoari erreparatu barik, alegia, hausnarketari lekurik utzi barik.

### **3.3. Ikus-kultura eta eskola: ikus-kultura hezkuntzarako tresna bikaina.**

Orain arte aipatutakoarekin, begi bistakoa da informazioaren jendartea ikus-kulturaren oso menpe bizi dela. Ikustea sinestea baino garrantzitsuagoa bihurtu den puntura heldu gara (Mirzoeff, 2003). Baina, zehazki, zer da ikus-kultura?

Kontzeptua Freedmanen teoria (2006) oinarri moduan harturik definitzen badugu, ikus-kultura gure bizitzari zentzua ematen dion erreminta bat da. Fernando Hernandez, halaber, ideia honekin bat dator:

*“Se coloca más allá de la celebración del placer y del consumo, y puede proporcionarnos una comprensión crítica del papel de las prácticas sociales de la mirada y la representación visual, de sus funciones sociales y de las relaciones de poder a las que se vincula, más allá de su mera apreciación o de las experiencias de placer estético y de consumo que proporcionan” (Hernandez, 2017: 39).*

Beraz, irudia plazera sortu ez ezik, irakasteko ere baliagarria zaigun tresna da. Freedmanek (2006) defendatzen duenez, ikasleek informazio iturri bisualen erabilera ikasi dezakete eta ikasi beharko lukete. Are gehiago, bere ustez, ikus-kulturaren ikaskuntza XXI. mendeko ikasleen ezagutza integrala eraikitzeke oinarritzko atalean bihurtu da.

Gizartean irudiak duen garrantzia ikusita, hezkuntza formalean ikus-kulturak lekurik ez izatea eta heziketa baliabide bezala ez ulertzea kontraesana dirudi. Alabaina, horretarako, ikus-kulturaren hizkuntzaren inguruan sakonki hausnartzea komenigarria litzateke; hau da, ikasleak irudientzako, irudiekin eta irudien bitartez hezi.

Egungo hezkuntza sistema egungo gizartearen eta merkatuaren funtzionamendu ziklikoarekin bat dator. Ikasleei hezkuntza *bulimiko* (Acaso, 2013) bat ari zaie eskaintzen, zeinetan barneratzen duten ezagutza guztia jaso bezain pronto ahazten duten. Hori dela eta, ikus-kulturari egotzi zaion arazo nagusietariko bat honen bitartez sortzen duen ezagutza da, bereziki hau modu pasibo batean jasotzen denean.

Maria Acasoren arabera (2009), ikus-kultura ikasleen irakaskuntza prozesuarekin lotura handia daukaten 3 kontzeptuen irakaskuntzarako baliabide ezin aproposagoa da. Kontzeptu horiek aisialdia, identitatearen sorkuntza eta estereotipoak dira. 3 kontzeptu hauen elkartasunak ikus-kulturarekin daukan harremana zuzeneko da eta hori aditzera emateko, idazleak Britney Spearsen figura hartzen du adibide gisa:

*Britney Spears incorpora los productos visuales que tienen que ver con el entretenimiento, hecho que se equipara con la obra de Spears, un fenómeno relacionado mas con el ocio que con lo musical; incorpora como eje central el concepto de identidad, esa identidad forjada a traves de las imagenes, inestable y cambiante, que la encumbra y la hunde a la vez; incorpora la noción de los estereotipos, ya que ella es en si misma un estereotipo visual” (Acaso, 2009: 161).*

Gauzak honela, ukaezina da hezkuntzaren ardua nagusietako bat ikasleei irudiek gudan duten eragina irakastea dela, hauek irudien gaineko zentzuzko kontsumo eta erabilera bat barneratu dezaten. Hezitzaileen artean honek garrantzi gehiago jaso beharko luke, aintzat

hartzen badugu egungo telebistan nagusitzen diren programa gehienak entretenimendurako baino zuzenduak ez direla.

Dominguezek (2017a) adierazten duenez, telebistak hartzaileen aukeretan dibertsitatea mugatzeaz gain, hartzaileak pasiboagoak bihurtzen ditu, euskarri honetan gailentzen diren edukiek ez baitute ikusleak pentsarazten laguntzen. Horren arrazoia informazioa eta estimulazioaren gainetik lehenesten den entretenimendu soila da.

Beraz, begiratzen ikastea zaila izango da, ikusmira urria baldin badugu. Horregatik, ikasleak ikus-kulturaren ulerkuntzarako hezteak irudia tresna bisual bakar bat den ideia horretatik haratago joan beharko ginateke eta irudia komunikaziorako, adierazkortasunerako, eztabaidarako, hausnarketarako zein sormenerako tresna gisa jaso, zeinetan nork bere identitate pertsonala zein kulturean ikertu eta sortzeko aukera izango duen, estereotipoen presentziaz ahaztu gabe.

### **3.4. Publizitatea eta estereotipoak: Yolanda Dominguez.**

Isabel Cabanellasek eta Alfredo Hoyuelosen (1995: 9) ikuspuntutik, estereotipoaren esanahia ideia honetan laburbiltzen da: “Se llama estereotipo a la plancha que se usa para repetir, para imprimir”. Honetaz inork baino gehiago dakien komunikabidea publizitatea da.

Publizitatearen eta estereotipoen arteko harremana ikertzen duen adituetako bat jada aurretik aipatua izan den Yolanda Dominguez artista da. Madrilgo TED jardunaldian (2017b) adierazi duenez, estereotipoak publizitateak erakusten dizkigun zeinuak dira, informazio guztia laburbiltzeko eta gure artean modu azkarrean komunikatzeko pentsatuak direnak. Hortaz, esan dezakegu irudi errealak baino, sinplifikazioak direla; hots, gizarteak behar dituen sinplifikazioak bere horretan komunikatzeko.

Sintetizatzea oso baliagarria izan daiteke denborari ahalik eta probetxu gehien ateratzeko; are gehiago, gizarte iheskor batean bizi bagara, non denboraren nozioa ziztu bizian igarotzen den (Bauman, 2003). Aldiz, sintetizazio hau pertsonekin egiten badugu, arriskuak etor daitezke. Arriskuak arrisku, publizitatea estrategia honetaz baliatzen da bere helburuak lortzeko eta guk jarrera hau naturaltasun osoz onartzen dugu. Honen arrazoia, masa hedabide honek erabiltzen dituen patroi ezberdinen erabilera da. Bere mekanismoen bitartez, identitatearen kontzeptu pertsonala eta soziala eraldatzen dute eta kontsumismoaren eta kapitalismoaren ideiak gure jokabide patroietan txertatzen dituzte.

Guk patroi horiek guztiak jada hain barneratuta ditugu, gure jarrera hauen menpekora izatera heldu dela. Hortaz, estereotipoek gure bizitzan sortzen duten ondorio nagusietako bat hauxe dela esan daiteke: publizitatean ikusiak izateko aukeratzen diren irudiak arruntasunez ikustea eta publizitatean ez agertzeko alboratzen dituzten beste irudi horiekiko – hots, patrietatik at geratzen diren horiekiko- errefusa adieraztea. Egun joera hau hain esplizitua da, alderdi antropologikoari ere egotzi zaiola. Hartara, bai publizitatean zein gizartean ere, arraza, adin, klase sozial eta genero konkretu bat zehazki goraiatzea eta horren baitan sartzen ez diren beste gainontzekoak gutxiestea.

### **3.5. Publizitatea eta generoa: genero bakoitzari egotzitako elementu sexistak**

Hala publizitatean nola komunikazioan, oraindik ere, elementu sexistak erabiltzen dira. Urkizuk (2011) adierazten duenez, publizitate sexista hain normalizatua dago, jendeari ez zaiola kezkarria iruditzen. Elementu sexista hauen bitartez, emakumeentzat zein gizonentzat baztertzailak diren rol sozialak gizarteratzen eta naturalizatzen dira; pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun handiagoa ala txikiagoa dutela erakusten digute, eta, are gehiago, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo bultzatzen dute.

Eredu eta prototipo horiek ez datoz bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten hezkuntza- eta gizarte arloko helburuekin. Publizitateak emakumeari egotzi dizkion estereotipo sexistak (emakume zaintzailea, sexu-objektua, laguntzaile ederra, etxekoandrea...) zabaltzen jarraitzen du, berdin- berdin errespetagarriak eta erakargarriak direla adierazi gabe, hala emakumeentzat nola gizonentzat, bai tradizioz “femenino” gisa hartutako balio eta jakintzak (zaintza, enpatia) bai tradizioz “maskulino” gisa hartutakoak (lehiakortasuna, boterea, arriskua).

Publizitatea emakumeen bizitza helburuak eredu estetiko jakin batzuetara egokitzeari mugatzen denez, emakumeak eta gizonak dibertsitate osoan lotzen ez dituela esan daiteke. Beraz, egungo kanonak ez datoz bat askotariko edertasun-moldeekin: emakumeen kasuan, gaztea, argala eta desgaitasun gabea izatea; gizonen kasuan, gihartsua izatea (Dominguez. 2017). Rita Segato (2003: 23) ideia honekin bat dator eta era berean, gizonaen generoaren egituraren biolentziak jasotzen duen lekuari ere aipamena egiten dio: *“Pese a estar en un medio poblado por anatomías de hombres, la estructura de género reaparece como estructura de poder, y con ella el uso y abuso del cuerpo de unos por otros”*.

### 3.6. Publizitatea eta gorputz-jarrerak: bertikaltasuna eta horizontaltasuna

Perfekzioan oinarritutako eredu kanoniko hauek zuzeneko lotura daukate irudien bertikaltasuna eta horizontaltasunarekin. Publizitatea bi eredu hauetan oinarritzen da bai emakumearen eta bai gizonezkoaren gorputz-jarrerak modelatzeko.

Gizonezkoarekin lotzen ditugun gorputz-jarrerak beti lotu ei dira bertikaltasunarekin; hots, boterezko jarrera batekin, normalean zuzen, zutik eta jantzita agertuz. Emakumeen kasuan, aldiz, horizontaltasunak agintzen du. Hori dela eta, iragarkietan ohikoa izaten da emakumeak etzanda eta arropa gutxiagorekin agertzea.

Alabaina, hau ez da XXI. mendean lehen aldiz agertzen den zerbait. Izan ere, honen aztarnak jada aspalditik artearen historian antzeman zitezkeen: koadroen margolariak eta ikusleak gizonak izaten ziren eta margolanetan biluzik eta etzanda agertzen ziren eta objektu gisa tratatzen zituzten pertsonak emakumeak ziren (Berger, 1972).



*Irudia 1. Venus de Urbino (1487-1576) eta Olympia (1832-1883) obra artistikoak, emakumearen horizontaltasuna irudikatzen (Berger, 1972: 35).<sup>1</sup>*

Illo beretik, intentzioak desberdinak izan arren, Margaret Harrison artistak 1971. urtean azaldutako “*Sexu, klase eta indarkeriaren arteko harremanak*” erakustaldia ere aipatzea dago (Uriola, 2017). Izan ere, bertan emakumeen lan eta sexu-esplotazioak salatzea helburu zuten koadroek genero ezberdinetako gorputz-jarrerei protagonismo osoa ematen zioten. Emakumezkoen gorputz-jarreraren bertikaltasunarekin egiten duen bezala, aipatzekoa da artista feministak obra hauetan arrazakeriari ere egiten dion aipamen berezia.

---

<sup>1</sup> *Modos de Ver (Berger, 1972)*



Irudia 2. Harrisonen Olympia Model Role (Hattie MacDaniel- Vivien Leight), Olympia Model Role (Obama-Monroe) eta Olympia Model Role (Lopez-Dietrich kuadroak.<sup>2</sup>

Errebindikazio feministak hor badaude ere, publizitateak euskarri ezberdinetan agertzen diren genero ezberdinei egokitutako gorputzak zein gorputz-jarrerak zabaltzen jarraitzen du eta gorputz-jarrera horiek aditzera ematen dituzten balio estereotipatuak naturaltasun osoz onartzen eta zabaltzen jarraitzen dira. Deauxy Lewisek balio hauek 4 kategoria ezberdinetan sailkatzen ditu (Lewis in Darder, 2014):

	EMAKUMEZKOA	GIZONEZKOA
<b>IZAERA</b>	Ahula, pasiboa, menpekoa, otzana, intuitiboa, sexurako grina gutxikoa.	Indartsua, aktiboa, independentea, inkonformista, arrazionala, inpultso sexual handikoa.
<b>ITXURA FISIKOA</b>	Txikia, arina, leuna formetan.	Handia, sendoa, bortitza formetan .
<b>ROL JOKABIDEAK</b>	Umeak eta adin zaharreko pertsonak hobeto zaintzen ditu.	Eremu publikoan hobeto moldatzen da (lanbide publikoetan, militantzia politikoan ...)
<b>LANBIDE MOTA</b>	Irakaslea, erizaina ...	Eraikuntzako langilea, meatzaria ...

Balio patriarkatu hauen ondorioz, XXI. mendeko emakumea- iragarkietan agertzen den emakumea estereotipo idealizatu bat dela dakien arren-, etengabe zirikatua sentitzen da emakume hori bezala sentitzeko (Dominguez, 2017b). XXI. mendeko emakumearen helburua ez da saltzen den eredu horretara hurbiltzea, badakielako eredu hori ez dela errealia; baina hala ere, halakoa balitz bezala sentitzeko beharra sortzen zaio.

Orain esandakoarekin bat etorritik, Mireia Darderrek emakumearen objektualizazioaren inguruan hurrengo ideia plazaratzen du:

*“La mujer del siglo XXI se ha olvidado de su cuerpo como fuente de placer y lo contempla como algo que debe modelar y domesticar para convertirlo en objeto de deseo y admiración por parte del hombre” (Darder, 2014:35).*

<sup>2</sup> Google.com

### 3.7. Hezkuntza mota: Hezikomunikaziora bidean.

Eskolan ikasten dabilzan ikasleek hitzezko eta bereziki irudiz osatutako diskurtsoen atzetik dagoen planifikazioaren eta manipulazioaren kontzientzia jaso beharko lukete. Horretarako aukera bat *Hezikomunikazioa* edota *Heziketa komunikazioan* eskola-curriculumean txertatzea izan daiteke (Basterretxea et al, 2007).

Kontzeptua bera, komunikazioa bere osotasunean hartzen duen hezkuntzarekin lotzen dela jakinarazten du Fernández Espuñesek (2015). Halaber, UNESCOk terminoa modu honetan definitzen du:

*"Incluye todas las formas de estudiar, aprender y enseñar, a todos los niveles y en toda circunstancia, la historia, la creación, la utilización y la evaluación de los medios de comunicación como artes prácticas y técnicas, así como el lugar que ocupan los medios de comunicación en la sociedad, su repercusión social, las consecuencias de la comunicación mediatizada, la participación, la modificación que producen en el modo de percibir, el papel del trabajo creador y el acceso a los medios de comunicación". (UNESCO in Fernández Espuñes, 2015: 27).*

Horren apustua eginez gero, irakasleen helburua gaitasun kritikoa duten subjektuak, problema konplexu eta berriak konpontzeko gai direnak eta sormenaren leihoak konplexurik gabe eta parez pare irekitzeko prest daudenak heztea izan beharko luke; beti ere, emozioek hezkuntzan daukaten garrantzia ahaztu gabe. Izan ere, garai berriek paradigma berriak ekarri dituzte. Hori dela eta, ikasleek hau ere kontuan hartu beharko lukete, markaren irudi sortzailearen baitan emozioak eta arrazoiak nahasten direla ikus dezaten.

Irakaskuntza emozioen mundura hurbiltzeak publizitateak saltzen dituen irudi ezberdinen inguruan hausnartzea ekarri beharko luke. Izan ere, iragarki arrazionalak ez ezik, iragarki emozionalak ere daude (Vázquez, 2007). Iragarkiak arrazionalagoak edota emozionalagoak izan arren, bertan agertzen diren pertsonak edo pertsonaiak gure alter ego-a izan ohi dira.

Telebistan azaltzen diren pertsonaiekin ezartzen den loturaren arabera, arrakasta maila aldatuko da. Lotura hau pertsonaiekin eta bere sinesgarritasunarekin ematen da, baina batez ere, beraiek bizi dituzten fikziozko egoera edo sentsazioekin. Bergerrek (1972) azaltzen duen moduan, begiratzen dugunean ez dugu gauza konkretu bat begiratzen, begiratzen dugun horrek gurekin izan dezakeen harremana edo lotura baizik.

Beraz, eskolak alderdi emozionala ere kontuan hartzen duen heziketa baten alde egin beharko luke, ikasleek publizitateak gaurko gizartean betetzen duen funtzioan, bere oihartzun sozialean zein bere komunikazio mediatizatuaren ondorioetan ikertzeko abagunea izan dezaten.



Ikusi denez, ikus-kultura hezkuntzara ekartzeak kontzeptu ezberdinen gainean lan egitea ekarri beharko luke. Hezikomunikazioan oinarrituz gero, ikasleek bai telebistatik zein edozein euskarritik azkar batean kontsumitzen dituzten irudiak beste ikuspegi askoz ere kritikoago batetik aztertzeke eta prozesatzeko aukera izango lukete.

Prozesu honen bitartez garatuko lituzketen jokabideek gizarte patriarkatuan agintzen duten genero rolak eta estereotipoak ulertzen lagunduko liekete, baita diskriminaziorik gabeko jarrera arduratsuago bat garatzen ere.

## 4. METODOLOGIA

Lan honek metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa izan du oinarri. Horretarako, metodo ezberdinak konbinatu direla esan daiteke: behaketa metodoa, indukzio metodoa eta analisi metodoa.

Behaketa metodoa esku-hartze osoan zehar erabili den metodoa izan da. Zehazki, ikasleen arteko interakzioak eta jokabideak behatu dira. Ikasleen arteko eta ikasle eta irakaslearen arteko interakzioetatik ateratako edukiari garrantzia handia eman zaio. Behaketa horrek, indukzio metodoa aplikatzen lagundu du. Esku-hartzearen prozesuan zehar jasotako informazio guztia pausuz- pausu aztertu izan da. Horren bitartez, esku-hartzerako proposamenak moldatuz eta finkatuz joan dira. Lehengo interbentzioaren nondik- norakoak zehazteko lehenengo pistak ikasleei lehenengo egunean pasa zitzaien galdetegi kuantitatibotik jasotako erantzunek eman dute. Gauzak honela, analisi metodoa interbentzio osoan zehar jasotako emaitzen azterketan aplikatu dela esan daiteke, geroko ondorioak laburbiltzeko lagungarria izan dena.

### 4.1. Hipotesiak

Interbentzio honen bitartez, lehenik eta behin, Virgen Niña eskolak ikus-kulturaren erabilerari zein irudien alfabetizazioaren ikaskuntzari ematen dion garrantzia aztertu nahi izan da, hipotesi nagusia hurrengoia izanik: *egungo eskolek behar beste baliabide eskaintzen dizkiete ikasleei irudiaren alfabetizazioan trebatzeko?*

Hipotesi honetatik abiatuta, ikasleek publizitateak zabaltzen dituen iragarkiekin daukaten harremana zelakoa den ikertu nahi izan da, orain arte horrekin lotuta barneratu duten ezagutza modu inkontziente batean barneratu dutela pentsatuz. Ikaskuntza pasibo horren ondorioz, ikasleak nekez ohartuko dira gorputzaren erabilerak komunikaziorako daukan ahalmen indartsuaz.

### 4.2. Tresnak

Esku-hartzea bi ataletan banatu dela esan daiteke. Lehendabizikoak, ikasleen aurre-ideiak batik bat ezagutzea zuen helburu. Horretarako, ikasleei kontsumorako euskarri diren –telebista, internet...- eta publizitatean agertzen diren iragarkiei buruzko galderak batzen zituen **galdetegi** bat pasa zitzaien. Halaber, galdetegi horretan -modu inplizitu batean izan bazen ere- generoarekin lotutako hainbat galdera ere erantzun behar izan zituzten, guztia modu anonimoan.

Bigarren atalak esku-hartze nagusiari egingo lioke erreferentzia. Hasieran, ikasleak publizitatea eta modako iragarkietan agertzen ziren modeloen gorputz-jarreraren inguruan hausnartu zuten. Horretarako, modako iragarki ezberdinak erakusten zituen *power pointa* erabili zen. Era berean, ikasleek Yolanda Dominguezek *Poses* lanerako egin zuen *bideoaren* berri ere izan zuten. Honela, ikasleek etxetik ekarritako *iragarkiekin*, sortutako *kartelekin* eta *txartelekin* batera, *Poses* jarduera martxan ipini zen.

Ondorengo urratserako, ikasleek *Poses* jardueran ateratako argazkiak erabili ziren. Argazki horien bitartez, ikasleei sormen lan bat egiteko proposamena egin zitzaion. Testuari baino, irudiei protagonismo osoa emanez, ikasleek taldeka *foto-muntaia* bat egin behar izan zuten. Lekue eta Andrieuren (2014: 5) esanetan, “fotomuntaketa ekintza politiko eta ideologikorako tresna da”. Horrelako eginkizunekin, ikasleei pentsamendu kritikoa garatzeko aukera eman zitzaion, ikasleek prozesu osoan zehar, ikasitakoa aplikatu, inferitu, alderatu, aztertu, pentsatu eta sakonki hausnartu behar izan zutelako, irudiak horretarako baliabide moduan izanik. Victorrek (2018) jakinarazten duen bezala, pentsamendu kritikoa ez da ekintza konkretu bat, prozesu intelektual ezberdinen bitartez sortzen den gaitasun kognitiboa, baizik

Metodologia honi esker, ikasleak une oro modu aktiboan ikasten jardun zuten; hots, irudiak behin eta berriz interpretatzen eta ekoizten. Beraz, erabilitako tresnei erreparatuz gero, **esku-hartzea** bera eta **galdetegia** ez ezik, ukaezina da **photo elicitation** (Harper, 2002: 13) metodologia ere askotan oso presente egon dela, ikasleek aztertutako irudietatik zein sortu zituzten lan artistikoetatik datuak jasotzeko oso erabilgarria izan zitzagulako.

## 5. LANAREN GARAPENA

Hurrengo puntu honetan, esku-hartzearen nondik- norakoak azalduko dira. Esku-hartzea Virgen Niña eskolan egiteko arrazoia unibertsitatean egin beharreko PRACTICUM IIIa izan da. Aurten praktikak eskola horretan egitea pentsatuta neukanez, lan honen interbentzioa ere eskola horretan egitea erabaki nuen.

FASEAK	DESKRIBAPENA	OHARRAK
<b>GALDETEGIA</b>	Galdetegiko galderak bete	Hurrengo saiorako iragarkiak ekartzeko gogorarazi
<b>GORPUTZ- JARRERAK: POSES</b>	a) Iragarkiak ikasgelan b) Iragarkiak gimnasioan	Hurrengo saiorako paisaiak ekartzeko gogorarazi
<b>FOTO- MUNTAIA</b>	a) Foto-muntaiak sortu b) Foto-muntaiak aurkeztu	

Goiko taulan antzeman daitekeen bezala, lehengo urratsa eskola horren errealitatea ezagutzea izan zen. Hori dela eta, ikasleei galdetegi bat pasa zitzaien. Galdetegiak 20 galdera zituen. Guztiak alde aurretik prestatutako galderak izan ziren. Ikasleei jakinarazi zitzaien guztiak erantzutea derrigorrezkoa zela. Dena den, egia da garrantzia handia eman zitzaiola egia esateari, behin eta berriz errepikatu baitzitzaien ez zegoela ez erantzun egokirik ezta okerrik ere ez. Hori dela eta, zerbait pertsonala bazen ere, ikasleei oso argi utzi zitzaien galdetegi anonimoa izango zela. Kasu honetan, aipatzekoa da galdetegiaren lagina ondorengo esku-hartze nagusiarena baino handiagoa izan zela. Izan ere, galdetegi 6. mailako taldeak ez ezik, 5. mailako taldeak ere bete zuen. Horren arrazoia galdetegitik ateratako erantzun kopuruak ondorioak orokortzen lagunduko zuela izan zen. Gauzak honela, guztira 10-12 urte bitarteko 45 ikasleek osatu zuten inkesta honen lagina.

Aldiz, bi ataletan banatzen den ondorengo esku-hartzerako, lagina murriztu zen: 6.mailak bakarrik parte hartu zuen. Esku-hartze honetan iragarkiek eta bertan agertu ziren gorputz-jarrerek berebiziko garrantzia jaso zuten. Hori dela eta, ez zen kasualitate hutsa izan Yolanda Dominguezen *Poses* lanak batez ere lehenengo atalean presentzia handia izatea. Bai esku-hartzearen lehengo atalerako zein bigarreneko ere, ikasleek pentsamendu kritikoari erreparatu behar zioten, bete beharreko lanak modu arrakastatsuan jorratzeko.

## **5.1. Galdetegia**

Lehengo fase honetan, ikasleek komunikabideen errealitatera gerturatzeko galdetegi bat bete behar izan zuten (Eranskinak; 8.1. Galdetegia, 36. orr). Esan bezala, horretarako 5. eta 6. mailako ikasleekin bildu nintzen. Galdetegia Internet, telebista eta publizitateari buruzko galdera ezberdinak zituen, batik bat ikasleen kontsumoa, gustuak, jokabideak eta abar ezagutze aldera. Galdera batzuk test moduan planteatuta zeuden, eta beste batzuk, aldiz, galdera irekiagoak ziren. Galdera irekiagoak egoteko arrazoia, ikasleei hausnarketarako, arrazonamendurako eta azalpenerako gaitasuna lantzeko aukera ematea zen.

Bi galdera berezi egin zitzaizkien, biak ala biak, genero rolekin lotutakoak. Galdera hauek proposatzeko zergatia ikasleek genero rolei buruz zituzten estereotipoak ezagutzea zen. Horietako lehengoa gezi batzuen bitartez erantzun behar izan zuten eta bigarrena, aldiz, marrazki baten bitartez (Eranskinak; 8.1. Galdetegia: 14 eta.15. galderak, 37. orr).

Beraz, galdetegi honen bitartez, ikasleek irudiaren alfabetizazioaren gaineko ezagutza jasotzen zuen diagnosi moduko bat egin zen. Egun horretan bertan, 6.mailako ikasleei bakoitzak 3 iragarki ezberdin ekartzeko eskatu zitzairen. Iragarkiek bi baldintza bete behar zuten: pertsona/k nahitaez agertzea eta era berean, produktu bat saltzea. Eskakizun hau egitean, nabaria da familien inplikazioa ere ikerketa honen parte bilakatu zela (Hernandez, 2007).

## **5.2. Esku-hartzearen diseinua eta aplikazioa**

Lanaren sarreran aurreratu bezala, esku-hartze honen protagonista nagusiak Virgen Niña eskolako 6. mailako ikasle taldea izan da. Guztira 25 ikaslek parte hartu zuten interbentzio honetan: horietatik 8 neskak ziren eta gainontzeko guztiak, mutilak. Kulturari dagokionez, ikasle guztiak Euskal Herrian jaiotakoak ziren, bi izan ezik, Saharan jaiotakoak zirela.

Oro har esku-hartze parte-hartzailea eta aktiboa izan da. Izan ere, proposamenean zehar aurrera eramanez diren ekintzen nolakotasuna gehien bat praktikoa izan da. Ekintza-hausnarketa-ekintza metodoa jarraitu da, izandako esperientziak aztertuz, praktikaren bitartez esperimentatuz eta bizipenetan oinarritutako ikaskuntza sustatuz.

Talde handiko hausnarketak eta elkarrizketak ugariak izan badira ere, norik bere buruarekiko elkarrekintza eta hausnarketa pertsonala ere bultzatu da. Talde handiko eztabaidak gaiarekin lotutako ikuspuntu eta iritzi ezberdinen existentzia batik bat adierazteko izan dira. Den den, gehienbat talde txikietan lan egiteko pentsatutako proposamena izan da, hasierako faseetan ikasle bakoitzak bere aurre-ideiak eta usteak bestean aurrean jakinarazteko aukera izan badu ere.

Helburua norik bere komunikaziorako eta irudien alfabetizaziorako gaitasunen gainean jardutea izan arren, ikasleak talde txikietan aritzeak eman dien abantailez ere ohartu dira. Talde moduan, ideia baten defentsarako argudioak erabili izan dituzte, gizarte harremana arautzen duten erregelak ezagutu eta praktikan ipini dituzte, rol batzuek eskatzen zizkieten zereginak onartu eta bete dituzte, norberaren eta besteen ekarpenak biltzen dituen produktu bat ekoizteko gaitasuna erakutsi dute, besteak, beste.

Ondorengo lerroetan, esku- hartze nagusia aurrera eramateko beharrezkoak izan diren bi atalak azalduko dira.

### **5.2.1. Gorputz- jarrerak: *Poses***

Aurretik aipatu bezala, atal honetan Yolanda Dominguezek egindako *Poses* lana bere osotasunean aintzat hartu da. Bere lana esku hartze honekin alderatuz gero, bata bestetik desberdintzen dituen elementu nagusiak testuingurua eta lanaren protagonistak dira. Izan ere, lanaren aldarrikapenaren helburua berdina bada ere, bera kaleko testuinguruan kokatzen da eta bertan parte hartzen duen jendea batik bat emakumeak dira (Dominguez, 2011).


Esku-hartze honen diseinua bi azpi ataletan azaltzea komeni da:

#### **a) Iragarkiak ikasgelan**

Horietako lehena ikasgelan bertan egin zen. Ikasleei hainbat iragarkiei buruzko galderak egingo zitzaizkienez, ikasgelan kamera bat tripode baten gainean grabatzen utzi zen, haien erreakzioak eta erantzunak jasotze aldera (Sanchez, 2018).

Ikasleak klasera sartzen hasi ziren eta kamera gela aurrean ikusi bezain pronto, honi buruz galdezka hasi ziren. Dena den, haiek ez zuten jakin kamera hori dagoeneko euren burua grabatzen zegoela. Ikasleak euren ohiko eserleketan eseri ziren eta hurrengo jardueran

egin behar zutena azaldu zitzairen, kameraren presentziari arreta berezirik eskaini gabe. Horretarako, Yolanda Dominguezek *Poses* lanean erabilitako hainbat iragarki erakutsi zitzaizkien, ikasleak gaian sartzeko egin zen power pointaren bitartez (Eranskinak; 8.4. Gaian sartzeko power pointa, 54. orr).



Irudia 3. Erakutsitako iragarkiak, Yolanda Dominguezen “Niños vs moda” bideotik hartutakoak.<sup>3</sup>

Gauzak honela, ikasleek modako argazki horiek iradokitzen zizkieten sentsazioak eta hipotesiak ahoz gora esaten hasi ziren. Modu inkontziente batean bazen ere, ikasleak iragarki horietan agertzen ziren pertsonen gorputz-jarreraren inguruan hausnartzen hasi ziren. Hausnarketa hori bideratzeko, mota honetako galderak egin zitzaizkien: *Zer ikusten duzue? Nola uste duzue sentitzen dela/direla? Zer dela eta uste duzue hori? ...* besteak, beste.

Jarraian, power point berean ikasleek euren etxetik ekarritako hainbat iragarki behatu zituzten, galdetegiaren egunean eskatutakoak. Hauek aztertzerakoan, ikasleak Yolanda Dominguezen iragarkien hausnarketatik ateratarako aurreiritzi berdinak errepikatu ziren: *“Neska hilda bezala agertzen da eta gizonak, ordea, oso indartsua ematen du”*.

Hausnarketa honen helburua genero ezberdinei ezarritako gorputz-jarrerak zein nolako emozio, ideia zein pentsamendu ezberdin sorrarazten zizkiguten konturaraztea zen. Esku-hartzearen lehengo atalean proposatutako galdetegiko erantzunak irakurri eta gero, egun honetan entzun ziren iritziak aldeztatik aurreikusitakoak izan ziren. Hori dela eta, hausnarketa kolektibo horren ostean, ikasleei Yolanda Dominguezen (2017) *“Niños vs moda”* bideoa erakustea erabaki zen, ikasleak gorputz-jarrerak epaitzean dauzkagun konbentzio kulturalak zein punturaino zabalduak dauden konturatu zitezten.

<sup>3</sup> <http://yolandadominguez.com/portfolio/poses/>



*Irudia 4. Yolanda Dominguezen “Niños vs moda” bideoari ateratako pantaila irudia.<sup>4</sup>*

Power pointa berdinare bitartez, esku-hartze honen ondorengo azpi atalean egin beharreko jarduera azaldu zitzairen. Horretarako, taldeak osatzeari ekin genion. Nahiz eta ikasleei ausaz egindako taldeak osatu zirela pentsarazi genien, taldeak jada aurretik prestatuta zeuden. Horren arrazoi gaitasun eta batez ere izaera berdineko talde desorekatuak sortzeko beldurra zen. Guztira 25 ikasle zirenez, helburua talde bakoitzeko 5 ikaslez osatutako taldeak sortzea zen. Aldiz, egun horretan horietako bi ikasle gaixorik jarri zirenez, 5 taldeak mantendu ziren baina horietako bik 4 ikaslez osatutako taldeak izan ziren.

## **b) Iragarkiak gimnasioan**

Esku-hartze honen helburua, 5 iragarkiek aditzera ematen zituzten gorputz-jarreraren imitazioa burutzea izan zen. 5 iragarki horiek ikasleek euren etxetik ekarri zituzten iragarki horietatik aukeratuak izan ziren:



*Irudia 5. Aukeratutako 5 iragarkiak.*

Aukeraketa horren irizpide nagusiak alde aurretik marko teorikoan Darderren eskutik (2014) aipatuak izan diren genero rolei inposaturiko balioak izan dira. Izan ere, iragarki guztietan agerikoa da bereziki emakumezkoaren gorputz-jarrera bat datorrela biolentzia matxista geldiarazteko asmorik ez duen gizarte patriarkatuarekin (Varela, 2018).

<sup>4</sup> <http://yolandadominguez.com/portfolio/poses/>



Esku-hartzeari hasiera emateko, gimnasioa 5 txokoetan banatu zen. Txoko bakoitzean, iragarki bat itsatsita zegoen. Honela, ikasleek txokoz- txokoz aldatzen joan behar izan zuten, txoko guztietatik pasa arte.

Alabaina, ikasleek errotazio hau ez zuten edozein modutan egin behar izan. Talde bakoitzeko partaide bakoitzak rol bat zeukan. Rolak hauxe ziren: koordinatzailea, modeloa/k, argazkilaria, estilista eta konposaketaren arduraduna. Taldeak txokoz- txoko txandaturuz joaten ziren moduan, ikasleek rolak ere aldatuz joan behar izan zuten, txokoz aldatzen zuten bakoitzean. Honela, ikasle guztiek rol guztietan egoteko aukera izan zuten. Rolak banatzeko erabakia euren eskuetan utzi zen.



*Irudia 6. Ikasleen rolak.*

Jarduera bitartean, ni behatzaile moduan aritu nintzen. Kamera eskuan neukala, ikasleak gimnasiotik grabatu nituen. Ikasgelan ez bezala, oraingo honetan ikasleek honen berri izan zuten. Grabatzeaz gain, pare bat alditan ere interbenitu behar izan nuen, hainbat ikasleek jarduerari buruzko zalantza batzuk izan zituztelako. Aitzitik, orokorrean ikasleek askatasun osoarekin eta modu autonomoan lanean aritu zirela esan daiteke.

Behin jarduera amaitu zuten, hurrengo dinamikarako fondo ezberdinak ekarri behar zituztela agindu zitzairen. Horretarako ipini zitzairen baldintza bakarra hauxe izan zen: ekarri beharreko irudiak paperean ekarri behar zituztela.

### **5.2.2. Foto- muntaia**

Foto- muntaia “collagearen eta metaketaren printzipioetan oinarritzen den baliabide artistikoa eta adierazpen-teknika da” (Lekue eta Andrieu, 2014: 5). Pintore kubistek eta dadaistek asmatutako collagearen teknikan oinarritzen da. Beraz, fotomuntaketa egiteko, collagearen prozedura teknikoak erabili behar dira: argazki desberdinetan agertzen diren irudiak hautatzen eta mozten dira, beste espazio, formatu batean ala beste argazki batean itsatsiz konbinatzeko.

Aldiz, ez da collagearekin honekin nahastu behar. Fotomuntaketan, collagean ez bezala, argazkiak dira itsasten diren elementu nagusiak. Gainera, fotomuntaketa egiteko hautatzen diren irudiak hiru dimentsioko espazio batean dauden sententzioa lortzeko antolatzen dira (Lekue eta Andrieu, 2014).

Modu honetan, jatorrizko testuingurutik ateratako irudiek beste irudi batzuekin konbinatzean eta beste testuinguru batean kokatzean, esangura berriak hartzen dituzte. Horretarako, oso garrantzitsua da transmititu nahi diren edukiak azaltzeko egokiak diren irudiak hautatzea, alegia, ondo aztertzea fotomuntaketan sartuko den irudi bakoitzaren esangura eta irudi desberdinak elkartuz sortuko diren esangurak. Helburua eduki zehatz batzuk besteei komunikatzea da.


#### **a) Foto- muntaia sortu**

Esku-hartzearen prozedurari jarraiki, ikasleei produktu finala burutzeko unea iritsi zitzaion.

Iragarkien antzezpena egin ostean, ikasleek jarduera horretan bizi izandakoa oso presente izango zuen sormen lan bat burutu beharko zutelako jakinarazi zitzaion. Azkeneko dinamika honen helburua orain arte irudiaren alfabetizazioan ikasitako guztia nolabait praktikan ipintzea zen. Horretarako, talde bakoitzak gorputz-jarrera bat antzezten zuen ikasle baten argazkia aukeratu behar izan zuen. Erabaki hau ere haien esku utzi zen. Honela, publizitateak erabilizako modeloen gorputz-jarrera berdinak erabiliz baina kasu honetan horiek euren gorputzetara transferituz, ikasleek horiekin irudi berri bat konposatu eta sortu beharko zuten, beti ere sormenetik eta batez ere alde zuzenetik landutako kritikotasunetik abiatuta.

Lan honetarako, aurreko esku-hartzean euren gorputzei atera zizkieten argazkiak inprimatuta eraman genizkien, guztiak tamaina ezberdinetan. Irudiak tamaina ezberdinetan eramanda, hiru dimentsioko espazioa lortzeko aukera ezberdin gehiago izango zuten. Argazki hauek erabiltzeaz gain, ikasleek etxetik ekarritako paisai eta fondo ezberdinak ere erabili behar izan zituzten, gerora foto-muntaia bat izango zena sortzeko.

Horretarako, aurreko jardueretan egondako ikasle talde berdinak mantendu ziren. Talde bakoitza gelako txoko batean kokatu zelarik, taldez talde haiek erabakitako modeloaren argazkiak banatzen hasi gintzaizkien. Hori baino lehen, eurek etxetik ekarritako irudi guztiak dagoeneko gela osotik sakabanatu ziren. Irudi gehienak internetetik inprimatutakoak edota aldizkari eta egunkari ezberdinetatik ateratakoak izan ziren. Paisai guztiak behatzeko denbora eman zitzaien eta behin argi zeukaten zer egin nahi zuten, *collage* teknikaren bitartez, foto-muntaia ezberdinak egiteari ekin zioten (Eranskinak; 8.9. Foto- muntaiak, 60. orr).



*Irudia 7. Ikasleek etxetik ekarritako paisai desberdinak gelatik sakabanatuta.*

## **b) Foto- muntaiak aurkeztu**

Azkeneko fase honetan, ikasleek eraikitako foto-muntaiak besteen aurrean aurkeztu behar izan zituzten. Aurkezterako momentuan, bere lana aurkeztera zihoan taldeak aukera eman zien beste taldeei ikusten zutenaren inguruko hipotesiak partekatzeko, egileen hausnarketa entzun baino lehen. Honela, talde bakoitzak egindako gogoetak adierazteaz gain, bakoitzak bere iritzia partekatzeko aukera izan zuen, hitz egin nahi izanez gero.

Nik egindako interbentzioari dagokionez, aipatzekoa da foto- muntaiari dagokion esku-hartze honetan, gorputz-jarreraren esku-hartzean baino gehiago interbenitu nuela. Izan ere, talde bakoitzak bere foto-muntaia aurkezten zuen bitartean, esaten zutenaren araberrako galdera ezberdinak egin nizkien, haien hausnarketan gehiago sakontzeko eta batez ere, irudiei emandako konnotazio berrien arrazoiak ulertzeko (Eranskinak; 8.10. Foto- muntaien aurkezpenen transkripzioak, 69. orr).

Nahiz eta helburua talde bakoitzak foto- muntaia bat egitea zen, azkenean guztiek bi foto-muntaia egin zituzten, talde batek izan ezik.

## 6. EMAITZAK

### 6.1. Esku-hartzearen emaitzak

Esku-hartze honen helburu nagusia ikasleak irudiaren alfabetizazioan trebatzea zen, hipotesi nagusia zera izanik: eskolek ez dietela ikasleei baliabide nahikorik eskaintzen irudiak kritikotasunez irakurtzen ikasteko. Hipotesi hau egiaztatze aldera, aurretik esan bezala, ikasleei galdetegi bat pasa zitzaien.

Galdetegiko erantzunek argi eta garbi aditzera eman dute ikasleek ez daukatela irudia sakonki aztertze gaitasunik ezta ohiturarik ere ez. Horren ondorioz, estereotipoak zabaltzen jarraitze joera dute eta hau dagoeneko naturalizatu dute, batez ere generoari buruz hitz egiten denean. Horren adibide dugu 5. eta 6. mailako ikasle taldeak 15. galderari emandako erantzunak, besteak beste. Grafikoaren emaitzek agerian uzten dute egunerokotasunari dagozkien ekintzak egungo gizarte estereotipatuak zabaldu dituen ideiekin bat datoze. Hala ere, bi mailen grafikoak alderatuz gero, egia da 5. mailaren kasua estereotipoen eragina askoz nabarmenagoa dela (Eranskinak; 8.3. Grafikoak, 49. orr).

Halaber, ikasleek eginiko marrazkiak ikusi besterik ez dugu behar antzeko balio sexistez ohartzeko. 14. galderan ikasleei zaldi bat eta behor bat irudikatze eskatu zitzaien. Marrazkiak ez ezik, marrazki horietan maiz erabilitako koloreek ere balio estereotipatuak indartzen dituzte. Zaldien irudiek itxura boteretsu, indartsua aditzera ematen dute eta nagusitzen diren koloreak, batik bat ilunak eta gogorrak dira. Era berean, zaldien gorputz-jarrerak marko teorikoan aipatutako bertikaltasunaren irudi dira. Gainera, zaldien irudietan hainbat elementu irudikatuta agertzen dira, maskulinitasunarekin lotu ei direnak; liburuak, kotxeak, baloiak, esaterako.

Behorrek, aldiz, ez du bertikaltasun hori hain garbi irudikatzen. Are gehiago, badira behorren gorputz-jarrera batzuk iragarkietan agertzen diren emakumezkoen gorputz-jarreraren antzera, hankak parez pare irekita daukatena. Kasu honetan kolore leunagoak nagusitzen dira. Are gehiago, batzuek ez dute ezta kolorerik ere ez. Jarrera ahulagoa aditzera ematen dute eta femininitasunarekin lotu ei diren elementuak antzematen dira horietako batzuetan: patinak eta pelutxeak, adibidez.

Hona hemen, bi kasuen adibidez batzuk:



*Irudia 8. Lehengo ilaran zaldien irudikapenak eta bigarren ilaran behorrarenak.*

Estereotipoez gain, ikasleek erantzundako galderetan nabaria izan da ikasle gehienek “zergatik” galderaren aurrean zelan arrazoitu ez dakitela. Galdera batzuk irekiak baziren ere, begi bistakoa izan da ikasleek arrazonamendurako eta kritikotasunerako gaitasuna oso eskasa daukatela. Azalpen batzuk egon badira ere, azalpenak oso pobreak eta koherentziarik gabekoak izan dira: *“Ez, igual ez, bai, pixka bat”*. Horren adibide 19. galdera dugu, zeinetan ikasleei hurrengo galderari erantzun behar izan dioten: *“Uste duzu telebistan agertzen diren produktuak dendetan daudenak baino hobeak direla?”* (Eranskinak; 8.3. Grafikoak, 51. orr).

Ondorio berdinerara heldu gaitezke 13. galderaren erantzunak aztertuz gero. Kasu honetan, ikasleei telebista zergatik ikusten duten galdetzen zaie. Bai 5. mailaren eta bai 6. mailaren kasuan, gehien nagusitzen diren arrazoiak hauek dira: *“Ez aspertzeko”, “Entretenitzen naizelako”, “Gustatzen zaidalako”* eta *“Dibertigarria delako”* (Eranskinak; 8.3. Grafikoak, 47. orr).

Zalantzarik ez dago ikasleek telebista euren egunerokotasunean oso presente duten euskarria dela. Aldiz, marko teorikoan aldeztu aurretik aipatu bezala, ikasleek ez dute kontsumitzen duten edukiaren kalitatearen kontzientziarik. Telebista kontsumitzeaz gain, ikasleek kontsumitzen duten eduki guztia entretenimendu hutsa baino ez dela antzeman daiteke. Hau ez da zertan zerbait txarra izan, baldin eta programazio guztiaren artean, ikasleek egindako aukeraketa entretenimendura bakarrik mugatuko ez balitz.

Galdetegitik jasotako erantzun guztiei esker, hasierako hipotesi nagusia egiaztatzea izan genuen. Honela, irudien alfabetizazioaren gainean jarduteko proposamen baten beharra funtsezkoa zela argi eta garbi ondorioztatu zen.

Galdetegiarekin egin bezala, esku-hartzearen aplikaziotik ere hainbat ondorioetara heldu gara. Nahiz eta esku-hartze honetan ikasleek jada hasieratik erakutsi duten interesa handia izan, egia da haien inplikazio maila areagotuz joan dela eginkizunek aurrera egin ahala. Ikasle batzuk beste ikasle batzuek baino gehiago parte hartu badute ere, ez da ikaslerik egon oro har parte hartu nahi izan ez duena. Ikasle guztiak jarduera guztietan gustura sentitu direla esango nuke. Hau baimendu duen faktoreetako bat une ezberdinetan eman zaien askatasuna izan delakoan nago: iritziak partekatzerako momentuan, rolak banatzean, fotomuntaiarako modeloa aukeratzean, besteak, beste.

Interes hau egotea baimendu duen beste ezaugarrietako bat irudiak aztertzeke zein irudiekin jolasteko proposatu zaien edukia izan dela esango nuke. Hau oso esplizitua geratu da jada ikasleek hasierako galdetegia bete behar izan zuten momentutik. Edukiaren berritasun honek asko lagundu du ikasleak hurrengo ataletan egin beharreko jardueretan gogotsu eta motibatuta parte-hartzen. Izan ere, galdetegia bete zuten egunetik ikasle askok interbentzio honen nondik norakoak ezagutzeko irrikatan zeudela jakinarazi ziguten.

Aukeratutako edukiaz gain, bideratutako metodologia oso egokia izan dela esango nuke, batik bat ikasleak une oro aktiboki mantendu dituelako. Honek irudien analisirako arrazonamendua garatzen lagundu die. Metodologia irekia, moldagarria eta parte-hartzaile baten alde apustu egin arren, esan beharra dago helburuak hasieran ezarritako modu berean mantendu direla. Beraz, helburuak une oro mantenduz, helburu horretara heltzeko bideak izan dira momentuan bertan egokitu direnak.

Bestalde, ikasleen parte-hartzea ez ezik, nabaria izan da familiaren parte-hartzea ere inplikatu duen proposamena eskaini zaiela. Kasu honetan asko eskertu da familiekin irudi ezberdinak eskuratzeko atzetik egin duten lana, hori gabe, ikasleek nekez lortuko bailituzkete jarduerak eskatutako erronkak.

Halaber, esku-hartze osoan zehar nik hartutako rola metodologia honetara ere egokitua izan da. Gehiegizko azalpenak eman beharrean, ikasleak izan dira euren parte-hartzearen bitartez, apurka- apurka protagonismo hori lortzen joan direnak. Ildo beretik, ikasleek eta bion artean mantendu dugun *feedbacka* ez da zerbait puntuala izan, etengabekoa baizik. Momentuan jaso ditudan erantzunen arabera moldatuak izan dira hurrengo faserako jarduerak. Ikasleen interpretazioak eta ekoizpenak jardueraz- jarduera jaso ondoren, esku-hartzearen zailtasun maila aldatuz joan da. Hori dela eta, ikasleen eta bion arteko negoziaketak bere biziko garrantzia izan duela zalantzarik ez dago.

Ikasleek nire laguntza eskatutako momentuak oso puntualak izan dira. Adibidez, euskaraz hitz egin behar zutenean. Egia da ez dela ikaslerik egon euskara ulertzen ez zuena. Aitzitik, euskaraz hitz egin behar zutenean, horietako batzuk arazoak zituzten. Hau nabaria izan da batez ere galdetegiko erantzun luzeak betetzeko momentuan, zein esku-hartze osoan zehar eman beharreko azalpenetan. Hala ere, B ereduko eskola dela jakinda, hau ez liguke gehiegi harritu behar.

Ikasleek izandako beste zailtasun bat aipatu beharko banu, foto- muntaiaren hasierako egoera aipatuko nuke. Izan ere, ikasle guztiek ez zuten foto- muntaia bat zer zen ezagutzen eta beraz, hasieran honekin martxan ipintzea apur bat kostatu zitzaien. Gainera, egia da etxetik ekarritako irudiak asko izan zirela. Zentzu honetan, irudien bonbardaketa honek apur bat zaildu zuen euren aukeraketa, buruan ideia desberdin asko baitzituzten, baina ezer argi.

Honek marko teorikoan egungo ikasleen kontsumitzeko joerari buruz esandakoa berresten du: ikasleak irudiak azkar batean kontsumitzeko joera dute, baina kontsumitzen duten horri denbora apur bat dedikatzen diotenean, estresa bezalako sententzioa azalerratu zaie, ez baitaude horretara ohituta. Horregatik, foto-muntaia egiteko irudi batzuk bakarrik aukeratu behar izatea eta gainera aukeraketa hori taldean egin behar izatea ez zitzaien lan erraza iruditu. Dena den, behin martxan ipini ziren, egia da jarduera motz geratu zitzaizela.

Egin diren foto-muntaiak ebaluazio-tresna gisa jasotzen baditugu, ikasleek irudiaren alfabetizazioan aurrera emandako pausua begi bistakoa da. Hasieran espero ez bezala, adostu baino foto-muntai gehiago egin ziren. Askotan esan oi da kantitateak ez duela kalitatea bermatzen. Dena den, kasu honetan ez dut uste horrela izan denik.

Kantitateak kalitatearekin bat datorrela esango nuke, bai irudien aukeraketari dagokionez, bai erabilitako baliabide formalei dagokienez, zein egindako hausnarketei dagokienez ere. Irargarkien jatorrizko testuingurutik antzeztutako gorputz-jarrerak bestelako irudiekin konbinatuz eta irudien artean ezartzen diren erlazio espazial topologikoak (aurrean/atzean, barruan/ kanpoan...) zainduz, ikasleek estereotipoak apurtu dituzten indar handiko eta esanahi desberdinetako sorkuntza polisemikoak eta probokatzailak aurkeztu dituzte, osasuna, injustizia, estresa, kirola eta janaria bezalako gai desberdinak gurera ekarriz. Ikasleak eurek izan dira sormenerako eta kritikotasunerako duten gaitasunaz harritu diren lehenak, besteen lanen berri izatean.



Estereotipoei dagokienez, nabaria da ikasleak gorputz-jarreraren horizontaltasunaren eta bertikaltasunaren ohiko ikuspuntuari beste zentzu berri bat eman diotela, gizarte patriarkatuarekin bat datozen balioen kontrako norabidea hartuz.

Horretara ailegatzeko, ikasleek beste begirada askoz ere sakonagoaren bitartez ikusi behar izan dituzte euren aurrean izan dituzten iragarkiak. Beraz, irudiak begiratzetik, irudiak modu askoz ere sakonago batean behatzera heldu direla esan daiteke, eman duten aurrerapauso honetaz esku-hartzearen amaieran ohartu badira ere.

Beraz, ikasleak egungo publizitateak zabaltzen dituen gorputz eredu kulturez ohartu dira eta eredu horiek txertatuta dituzten patroiek euren identitatearen sorkuntzan, jokabidean zein harremanetan daukaten eraginaz jabetu dira. Ikasleek irudiek komunikaziorako daukaten ahalmenaz eta baita arriskuaz ere konturatu dira, publizitateak erabiltzen dituen estrategiak ebidentzian ipiniz. Hori dela eta, ez da kasualitate hutsa, egindako foto-muntaia askotan gorputzaren askatasuna eta aniztasuna aldarrikatzea. Funtsean, ikus-kultura euren ohiko kulturaren parte hartzen hasi dira, jakinik zein garrantzitsua den euren bizitzarako letra eta zenbakiekin bezala, irudietan ere alfabetatuta egotea.

## 6.2. Hobekuntza-proposamenak

Behin esku-hartzea aplikatuta, badira hainbat alderdi hobetu daitezkeenak.

Ikusita ikasleei apur bat kostatu zitzaiela foto-muntaiarekin hastea, aukera bat izan zitekeen foto-muntaiaren azalpena foto-muntai gehiagoren adibideekin azaltzea. Dena den, hau lehenagotik ez egiteko arrazoia ikasleen sormena ez mugatzea izan zen. Izan ere, adibide gehiegi emanaz gero, baliteke ikasle guztiek -nahigabe bada ere- antzerako lanak burutzea.

Hala ere, egia da ikasleek ideia asko zeuzkatela foto-muntai gehiago sortzeko. Aldiz, geneukan denbora guk nahiko genukeena baino murrizagoa zen. Horren adibide dira egindako hausnarketa laburrak. Nahiz eta elkarrizketarako eduki potentea izan, egia da denbora dela eta, ezin izan genuela lanetan nahi beste luzatu. Gainera, hasiera batean ikasle batzuek denbora dezente galdu zuten euren artean eztabaidatzen zer egin eta zer ez. Ikusita lan erritmo desberdinak zeudela, beste aukera bat lehenago amaitu zuen taldeak beste taldeei laguntzeko aukera ematea izan zitekeen.

Hobetzeko beste alderdi bat foto-muntaien aurkezpena izan daiteke. Izan ere, ikasleek euren lana besteen aurrean aurkeztean, taldean bakar batek bakarrik hitz egin zuen, hots, hitz egitera ohituta zegoen ikasleak, hain zuzen ere. Ikasle guztiei protagonismo bera emate aldera, aurkezpenak egiteko baldintza berri bat ipintzea genuen: adibidez, foto-muntaia zertan datzan azaltzeaz gain, talde lana zelari kudeatu duten ere azaltzea, ikasle guztiek egindako ekarpenak ere ikusiak eta baloratuak izan daitezten. Honetaz gain, egia da hainbeste zentratu ginela foto-muntaien irudietan, ahaztu egin zitzaidala ikasleei esatea foto-muntaiak izen edota titulu batekin ere aurkeztu zezaketela. Gainera, horrek ziurrenik nolabait lagunduko zuela euren gogoeta bideratzen.

Honen helburu nagusia ikasleak irudiaren alfabetatzean trebatzea bazen ere, dudarik ez dago horrelako proposamen batek diziplinartekotasunari leku handia eskaintzen diola. Hau berresteko, ikasleek fotomuntaketatik ikasgelara ekarritako gai anitzak gogora ekarri baino ez ditugu behar. Diziplinartekotasunak gai ezberdinak ikuspuntu ezberdinetatik lantzea ahalbidetzen digun neurrian, bistan da irudiek edozein gai lantzeko aukera ere ematen digutela. Aurrera eramandako esku-hartzearekin, agerikoa da ikasleak hitzezko eta ez-hitzezko komunikazio gaitasunean trebatu direla, hizkuntza ezberdinetan mintzatu direla, gorputz adierazpena zer den esperimintatu dutela, harreman ezberdinak eraiki eta sustatu dituztela, ikasgelaren inklusioa bultzatu dutela, pentsamendu kritikoa garatu dutela, beste gauza askoren artean.

### 6.3. Ondorio orokorrak

Ukaezina da irudiek gure bizitza inbaditzen dutela. Hauek eskola barruan zein kanpoan duten presentziagatik, eskolak ikus-kultura oro har bere kultura irakaskuntzaren parte ez jasotzea kontraesana dirudi. Hori dela eta, eskolak ikasleek mundua begiratzeko duten moduz hausnartzera animatu beharko lituzke; hau da, irudien edertasunetik haratago joan eta irudiak irakaskuntzarako tresna bisual gisa jaso, ikasleak munduan gertatzen ari denaren inguruko berri izateko, euren burua gizartean kokatzeko, dauden injustiziez ohartzeko, errealitatea eta fikzioa desberdintzeko, gai ezberdinen inguruko eztabaidak pizteko, lan berriak sortzeko, besteak, beste.

Dena den, irudiak irakurtzen ikastea ez da egun batetik bestera lortzen den gauza. Honek prozesu luze bat eskatzen du. Esku- hartze honetan ikusi bezala, agente guztien kolaborazioa beharrezkoa da. Eskolak ezer gutxi lortuko du, baldin eta eskolaz kanpoko eragileek –familiak, adibidez- ez badute erronka honetan laguntzen. Horregatik, kasu honetan Virgen Niñari, bertako ikasleei eta familieei eskerrak eman nahiko nizkieke, euren parte-hartzerik gabe, nekez lortuko genukeelako horrelako interbentzio bat aurrera eramatea.

Horrelako lanei esker, nabaria da eskolak ikasleak trebatu ditzakeela irudiaren alfabetizazioan. Ikasleak irudi ezberdinen aurrean jartzean, egiaztatu da ikasleei irakurketa-parametro jantzia falta zaiela, ikusten dituzten irudien azterketa sakona eta balorazio zehatz bat egiteko. Alabaina, konponbidea ez litzateke ikasleei telebista edota teknologia berrien erabilera debekatzea, hauen erabileraren ikasketan sakontzea baizik. Honek jada txikitatik ikasleak irudiak aukeratzera ohitzea ekarri beharko luke, baina ez edozein modutan: irizpide jakin batzuk jarraituz, hau da, irudi bata zein bestearen erabilera zein ondorio ekar diezaieketen erakutsiz.

Ikasleak ikastetxean irudietara gerturatzen, irudi horietatik informazioa ateratzen, ikusi dutena egiaztatzen eta konparaketak egiten ohitzen badira, eskola orduz kanpo gauza bera egiteko ohitura hartuko dute, horretara behartuta egon ez arren.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- Acaso, M. (2009). *La educación artística no son manualidades*. Madrid: Libros de la Catarata.
- Acaso, M. (2013). *Reduvolution*. Madrid: Paidós, Ibérica.
- Basterretxea, J.I.; Idoiaga, P.; Ramírez de la piscina, T. eta Zarandona, E. (2007): *Alfabetizazio Berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak. Soziologiako Euskal Koadernoak*- Cuadernos Sociológicos Vascos, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- Bauman, Z. (2003). *Modernidad líquida*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Berger, J (1972). *Modos de ver*. Barcelona: Editorial Gustavo Gili.
- Cabanellas, I. eta Hoyuelos, A. (1995). Los estereotipos, una forma de contaminación cultural. *Infancia*, 32
- Darder, M. (2014). *Nacidas para el placer*. Barcelona: Rigden Edit, SL.
- Dominguez, Y. (2017a). ¿Llevas una dieta sana de imágenes? *Huffpost*. [https://www.huffingtonpost.es/yolanda-dominguez/llevas-una-dieta-sana-de-imagenes\\_a\\_21902398/](https://www.huffingtonpost.es/yolanda-dominguez/llevas-una-dieta-sana-de-imagenes_a_21902398/) [kontsulta eguna: 2017/12/23]
- Dominguez, Y. (2017b). Revelando estereotipos que no nos representan. TEDxMadrid. <https://www.youtube.com/watch?v=H1C-vG4yBMI> [kontsulta eguna: 2017/11/01]
- Dominguez, Y. (2011) . Poses. Yolanda Dominguez. <http://yolandadominguez.com/portfolio/poses/> [kontsulta eguna: 2017/11/14]
- Fernández Espuñes , D. (2015). *Educomunicación Las Tecnologías de la Información y la Comunicación, en la educación*. Universidad de Valladolid
- Freedman, K. (2006). *Enseñar la Cultura Visual. Currículum, estética y la vida social del arte*. Barcelona: Octaedro.
- Harper, D. (2002). Talking about pictures: a case for photo elicitation, *Visual Studies*, Vol. 7 nº 1:13-26.
- Hernández, F. (2007). *Espigadoras de la Cultura Visual. Otra narrativa para las artes visuales*. Barcelona: Octaedro S.L.

- Islas, O. (2009). La convergencia cultural a través de la ecología de medios. *Comunicar*, XVII, 25-33.
- Sanchez, A. (2018). Virgen Nina eskolan egindako esku-hartzea. <https://www.youtube.com/watch?v=nDvYtJ6KsW0&feature=youtu.be> [kontsulta eguna: 2018/01/06]
- Segato, R. (2003). *Las estructuras elementales de la violencia. Ensayos sobre género entre la antropología, el psicoanálisis y los derechos humanos*. Buenos Aires: Prometeo y Universidad Nacional de Quilmes.
- Lekue, P. eta Andrieu, A. (2014). *Lehen Hezkuntzarako Ikus Hezkuntza*. Gasteiz: EHU/UPV
- Martín Saura, L. (2011). “Estamos cansados de mirar, hoy queremos vivir la imagen”. *PÚBLICO* <http://blogs.publico.es/fueradelugar/256?estamos-cansados-de-mirar-hoy-queremos-vivir-la-imagen?> [kontsulta eguna: 2017/10/12]
- Mirzoeff, N. (2003). *Una introducción a la cultura visual*, Barcelona: Paidós.
- Uriola (2017). Margaret Harrisonen begirada feminista. <https://uriola.eus/bilbo/1508492538390-margaret-harrisonen-erakusketa> [kontsulta eguna: 2018/02/04]
- Urkizu, U. (2011). “Estereotipoek emakumearen rola mantentzea dute helburu”. *Berria*. [https://www.berria.eus/paperekoa/1575/034/003/2011-10-21/lege\\_info.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1575/034/003/2011-10-21/lege_info.htm) [kontsulta eguna: 2018/02/04]
- Varela, I. (2018). *Las chicas de la curva. Emakumeen irudikapena eta indarkeria matxistaren trataera komunikabideetan*. EHU/UPVko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Auditorioan aurkeztutako hitzaldia. Leioa. Apirilaren 10an, Kazetaritza Saila, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Dekanotzaren babesaren eskutik.
- Vázquez, B. (2007). *Publicidad Emocional. Estrategias creativas*. Madrid: ESIC Editorial.
- Victor, V. (2018). Pensamiento crítico, la clave para un mejor futuro. El blog de EduCaixa [https://blog.educaixa.com/es/-/pensamiento-critico-la-clave-para-un-mejor-futuro?utm\\_source=newsletter&utm\\_medium=email&utm\\_campaign=eduCaixa.+Newsletter+Mayo&utm\\_content=ES+Accede+a+nuestro+blog&utm\\_term=Gen%C3%A9rica](https://blog.educaixa.com/es/-/pensamiento-critico-la-clave-para-un-mejor-futuro?utm_source=newsletter&utm_medium=email&utm_campaign=eduCaixa.+Newsletter+Mayo&utm_content=ES+Accede+a+nuestro+blog&utm_term=Gen%C3%A9rica) [kontsulta eguna: 2018/05/09]



*“Cambiar las imágenes para cambiar el mundo”*

Yolanda Dominguez

## 8. ERANSKINAK

### 8.1. Galdetegia

#### OHARRAK:

- **INORK EZ du jakingo zer erantzun duzun.** Jasotako erantzunak Unibertsitatean gauzatzeko ari naizen ikerketa lan bat egiteko baino ez dira.
- **GOGOAN IZAN:** ez dago erantzun onik ez txarrik, denek balio dute. KONTUA DA EGIA ERANTZUTEA.

#### HAS GAITEZEN!

##### 1. Zer zara?: (jarri x dagokizun erantzunean)

- \_\_\_ Neska.
- \_\_\_ Mutila.

##### 2. Zenbat urte dituzu orain?: (jarri zenbakia)

Urteak: \_\_\_\_\_

##### 3. Internet erabiltzen duzu?: (jarri x dagokizun erantzunean)

- \_\_\_ Bai, askotan.
- \_\_\_ Bai, baina gutxitan.
- \_\_\_ Ez dut erabiltzen.
- \_\_\_ Ez dut Internet ezagutzen.

##### 4. Nola erabiltzen duzu Internet?: (jarri x dagokizun erantzunean)

- \_\_\_ Normalean bakarrik.
- \_\_\_ Normalean gurasoekin.
- \_\_\_ Batzuetan bakarrik eta beste batzuetan gurasoekin.
- \_\_\_ Normalean lagunekin edo neba-arrebeekin.
- \_\_\_ Ez dut Internet erabiltzen.

##### 5. Zenbat ikusi duzu telebista zure aisialdian azken hilabeteetan?: (bakarrik balio du x markatzea erantzun bakarrean)

- \_\_\_ Egunero.
- \_\_\_ Astean batzuetan.
- \_\_\_ Asteburuetan bakarrik.
- \_\_\_ Behin ere ez edo ia.

##### 6. Normalean norekin ikusten duzu telebista?

- \_\_\_ Bakarrik.
- \_\_\_ Anai edo arrebarekin.
- \_\_\_ Gurasoekin.
- \_\_\_ Lagunekin.

##### 7. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista EGUNERO?

- \_\_\_ Eskolara joan aurretik.
- \_\_\_ Eguerdian.
- \_\_\_ Eskolatik irten ondoren.
- \_\_\_ Gauean.

##### 8. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista ASTEAN ZEHAR?

- \_\_\_ Eskolara joan aurretik.
- \_\_\_ Eguerdian.
- \_\_\_ Eskolatik irten ondoren.
- \_\_\_ Gauean.

##### 9. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista ASTEBURUETAN?

- \_\_\_ Goizean.
- \_\_\_ Arratsaldean.
- \_\_\_ Gauean.
- \_\_\_ Edozein ordutan.

##### 10. Zein saio mota ikusten duzu gehien telebistan?: (aukeratu HIRU GEHIENEZ)

- |                         |                            |                           |
|-------------------------|----------------------------|---------------------------|
| 1. ___ Dokumentalak.    | 5. ___ Lehiaketak          | 9. ___ Marrazki bizidunak |
| 2. ___ Filmak.          | 6. ___ Bihotzeko programak | 10. ___ Kanal tematikoak  |
| 3. ___ Telesailak.      | 7. ___ Kirola/futbola      | 11. ___ Beste batzuk.     |
| 4. ___ Umorezko saioak. | 8. ___ Musika saioak       |                           |

##### 11. Telebistan, zein saio/telesaila... gustatzen zaizun gehien?

---

---



12. Ze kate ikusten duzu gehien?: (aukeratu 3 GEHIENEZ)

- a. \_\_ LA 1      h. \_\_ CLAN      l. \_\_ NOVA      o. \_\_ LA SEXTA
- b. \_\_ LA 2      i. \_\_ NEOX      m. \_\_ FDF      p. \_\_ TELEDEPORTE
- c. \_\_ ETB1      j. \_\_ TELES      n. \_\_ NITRO      q. \_\_ DIVINITY
- d. \_\_ ETB2      k. \_\_ BOING      ñ. \_\_ CUATRO      r. \_\_ Disney Channel
- e. \_\_ ETB3      l. \_\_ Discovery      o. \_\_ ANTENA3      s. \_\_ Beste batzuk

13. Zergatik ikusten duzu telebista?: (eman GUTXIENEZ BI arrazoiz)

---



---




---

14. Zaldiari eta behorrari ondo pasatzea gustatzen zaie eta gauza asko egiten dute, baina zaldiak gauza batzuk egiten ditu eta behorrak beste batzuk. Zein uste duzu egiten duela bakoitzak?


A dibide bat jarriko dizugu: behorrari ... "bizikletan ibiltzea" gustatzen zaio.

Lotu geziekin zure ustez zer gustatzen zaion bakoitzari eta era berean, marraztu ezazu zaldiaren eta behorraren irudia bakoitzari dagokion laukitxoan.



15. Mutil bat eta neska bat etxean daude etxeko lanak egiten. Zein gauza uste duzu egiten dituela mutilak eta zein gauza neskak?

Guk badakigu oheak egitea mutilari egokitu zaiola. Lotu geziekin zure ustez nork egiten dituen gainerako lanak.



16. Zein pertsonarekin identifikatzen zara gehien (abeslari, idazle, zientzialari, kirolari, politikari ...)? (aipatu 3 PERTSONA GEHIENEZ)

---



---



---

**17. Telebistako zein iragarki gogoratzen dituzu? (AIPATU HIRU eta esan bakoitzak zein PRODUKTU saltzen duen)**

1. \_\_\_\_\_

➤ PRODUKTUA: \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

➤ PRODUKTUA: \_\_\_\_\_

3. \_\_\_\_\_

➤ PRODUKTUA: \_\_\_\_\_

**18. Telebistan agertzen ez diren beste komunikabideetan (sare sozialak, aldizkaria, kanpoko marketing-a...) agertzen diren iragarkiak gogoratzen dituzu? (Gogoratzekotan, AIPATU HIRU eta esan zein KOMUNIKABIDEETAN ikusi dituzun)**

a. \_\_\_ Bai.

b. \_\_\_ Ez.

1. IRAGARKIA: \_\_\_\_\_

➤ KOMUNIKABIDEA: \_\_\_\_\_

2. IRAGARKIA: \_\_\_\_\_

➤ KOMUNIKABIDEA: \_\_\_\_\_

3. IRAGARKIA: \_\_\_\_\_

➤ KOMUNIKABIDEA: \_\_\_\_\_

**18. Uste al duzu telebistan azaltzen diren produktuak dendatan dauden beste batzuk baino hobekoak direla?**

1. \_\_\_ Ez.

2. \_\_\_ Igual ez.

3. \_\_\_ Bai.

4. \_\_\_ Pixka bat.

**Zergatik?**

\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

**19. Zein dira zure bi kolore gustukoena?**

1. \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

**20. Ipin ezazu aurten Olentzerori eskatuko diozun 3 gauza.**

1. \_\_\_\_\_

2. \_\_\_\_\_

3. \_\_\_\_\_

## 8.2. Zaldiaren eta behorraren irudiak (14. Galderaren erantzunak)


### 8.2.1. L.H-5 Zaldiak eta behorrak








8.2.2. L.H-6 Zaldiak eta behorrak







### 8.3. Grafikoak: galdetegiaren erantzunen batz bestekoak




#### 4. Nola erabiltzen duzu internet?



#### 5. Zenbat ikusi duzu telebista zure aisialdian azken hilabetean?




#### 6. Normalean norekin ikusten duzu telebista?







### 7. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista EGUNERO?




### 8. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista ASTEAN ZEHAR?




### 9. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista ASTEBURUAN?




### 10. Zein saio mota ikusten duzu gehien telebistan?




### 11. Telebistako zein saio gustoko duzu gehien?




### 12. Zein kate ikusten duzu gehien?




### 13. Zergatik ikusten duzu telebista?




14. Zaldia eta behorra 5. maila




14. Zaldia eta behorra 6. maila




### 15. Neska edo mutila 5. maila




### 15. Neska edo mutila 6. maila




### 16. Zein lanbiderekin identifikatzen zara gehien?




### 17. Telebistako zein iragarki gogoratzen dituzu?




18. Telebistan agertzen ez diren beste komunikabideetan agertzen diren iragarkiak gogoratzen dituzu?




19. Uste duzu telebistan agertzen diren produktuak dendetan saltzen direnak baino hobeak direla?



20. Zein dira zure bi kolore gustokoenak? (NESKAK)




20. Zein dira zure bi kolore gustokoenak? (MUTILAK)






21. Zeintzuk dira aurten Olentzerori eskatuko dizkiozun hiru gauzak? (NESKAK)



21. Zeintzuk dira aurten Olentzerori eskatuko dizkiozun hiru gauzak? (MUTILAK)



## 8.4. Gaiari sartzeko Power Pointa





**IRAGARKIAK**

**GORPUTZ- JARRERAK**

*Gorputz-adierazpena eta komunikazioa*

LH 6 MAILA





## NIÑOS vs MODA

- <https://www.youtube.com/watch?v=LlShHeU2qU4&t=11s>

## ZUEN IRAGARKIAK



## GORPUTZ- JARRERAK



5 IRAGARKI → 5 TALDE → 5 ROL

ARGAZKILARIA

MODELOA/K

ESTILISTA

KONPOSAKETA

KOORDINATZAILEA

## EKIN DIEZAI OGUN LANARI!!!



8.5. Aztertutako iragarkiak



8.6. Etxetik ekarritako iragarkiak



### 8.7. Aukeratutako iragarkiak




## 8.8. Poses: iragarkietatik, gorputz-jarreretara



Irudia 1. Lancome koloniaren iragarkia



Irudia 2. Android Lollipoparen iragarkia.



Irudia 3. Ella & El modako iragarkia.



Irudia 4. Bertako igogailuen iragarkia.




Irudia 5. Suunto erlojuen iragarkia.

## 8.9. Foto- muntaiak


















Tu máquina del tiempo... libre.







## 8.10. Foto- muntaien aurkezpenen transkripzioak



- **Ikasleak:** “Tomatito hotel garesti horretan bizi da eta hoteletik eskapatu da, ikusi duelako ume bat zegoela mendiari begira. Orduan, Tomatito azkar azkar tontorreraino igo da eta ume hori saldatzen hasi da tontorretik, bera dagoen tokiraino igotzea nahi duelako, baina mutila ez daki zer egin, zalantzetan dago.”
- **Irakaslea:** “Zergatik tomate bat?”
- **Ikasleak:** “Tomate hori aukeratu dugu Tomatitoak umeari animatu nahi duelako mendia igotzen baina ez kirola egiteko, ondo sentitzeko eta osasuntsu egoteko. Mendira igotzea nahi du ikusteko horrela osasuntsuago egongo dela.”
- **Ikaskide bat:** Ni atzo joan nintzen nire aitekin!
- **Irakaslea:** “Aizue, eta zergatik bizi da Tomatito hotel horretan?”
- **Ikasleak:** “Hor bizi da porque hotel oso oso ona da, 5 izar ditu! Tomatea batzuentzat elikagai karoa da eta mundo guztiak ez dauka dirua tomateak erosteko. Horregatik jarri dugu hotel horretan, jakiteko tomatea ez dela ba gominolak bezala, 5 zentimokoak. Eta gainera gu bizitzeko frutak behar ditugu eta gominolak ez, aunque niri bakarrik gustatzen zaizki gominolak” (barre egiten dute).



- **Ikasleak:** “Badago abioi super guapoa eta kopilotoa neska bat da, neskak ere abioiak gidatzen dakitelako”.
- **Irakaslea:** “Normalean beti izaten dira gizonak gidatzen dutenak ala?”
- **Ikasleak:** “Bai, formula1n eta horrela ia guztiak dira gizonak”.
- **Ikaskide bat:** “Depende, porque orain Play Stationean eta zuk aukeratu dezakezu pilotoak” .
- **Irakasleak:** Begira, ba hori ere aukera ona da, ezta? Bideojokoetan ere emakumeak bere presentzia izatea, ezta?
- **Ikasleak:** “Bai, eta gainera batzuetan uzten dizute zuk nahi duzun ilea eta horrela jartzea”.
- **Irakaslea:** “Oso ondo.”



- **Ikasleak:** “Hau mutil bat da eta farola batean konbertitu da. Horrela ipini dugu ze gaua denean, guk farolak bezala, gure burua pizten dugu eta ezin gara lokartu ze dugu burua gauza askotan, eta horregatik jarri dugu hiru buru, eta pertsona keinu hori dauka ezin duelako lorik hartu.”
- **Irakaslea:** “Ze kuriosoa! Beraz, ulertzen dudanagatik, gizon horrek oheratzera doanean, ezin du lorik hartu, buruan gauza asko dituelako eta horregatik literalki ipini dizkiozue kasu honetan bi buru eta erdi, nolabait adierazteko gauza askotan pentsatzen ari dela?”
- **Ikasleak:** “Bai!”
- **Ikaskideak:** “Ala, que wapo!” (Barre egiten dute)
- **Irakaslea:** “Eta zuek gizon horrekin identifikatzen zarete?”
- **Ikasleak:** “Batzuetan bai. Ni adibidez ba azterketak eta horrela ditugunean asko kostatzen zait lo egitea ze urduri jartzen naiz.”
- **Irakaslea:** “Gaizki aterako zaizun beldur zara ala?”
- **Ikaslea:** “Bai, batzuetan.”
- **Irakaslea:** “Normala da urduri jartzea, niri ere gertatzen zait beste gauza batzuekin, baina ez gara zertan kezkatu behar!”



- ***Ikasleak:*** “Neska honi kroketa bat ipini diogu buruan, ze lotu dugu emakumeak janariarekin. Beste iragarki batean ikusi genuen como que emakumeak seduzitu behar dituztela gizonak eta orduan gizonak emakumeak behar dituzte. Eta guk, janaria behar dugu bizitzeko. Orduan emakumea janaria da eta sardezka gizona. Horregatik sardezka emakumea hartu nahi du bere necesidadea duelako, baina emakume kroketa ez da bere tokitik mugituko, nahiz eta sardezka pintxatzen duen.”
- ***Irakaslea:*** “Oso interesgarria! Beraz, zuek uste duzue iragarkietan ikusten ditugun emakumeak beti egoten direla prest gizonen beharrak eksklusiboki asetzeko?”
- ***Ikasleak:*** “Uste dugu baietz”.
- ***Irakaslea:*** Orduan, honi alderantzizko buelta bat eman nahi izan diozue, emakumeak erabakitzeko dituen eskubideak nolabait errebindikatuz eta adieraziz emakumea ez dela inoren objektua izan behar, ezta?
- ***Ikasleak:*** “Bai, nahi duena egin dezakeela, eta ba adibidez hemen, ez bada mugitu nahi, ba ez dela mugituko nahiz eta sardexka nahi duen. Horregatik ere agertzen da horrela besoekin.”
- ***Ikaskidea (neska):*** “Si es que que buena modelo soy!” (Barre egiten dute)



- **Ikasleak:** *Guk gauza oso antzekoa irudikatu dugu. Normalean emakumea berotzen du gizona eta hórrela, porque iragarkietan askotan agertzen da como begiradarekin seduzitzen eta hórrela. Eta hori alderantziz jarri dugu. Gure kasuan neska bat basoan dago eta ahoan pipa bat dauka. Bueno ez da pipa normal bat, zuhaitzen hostoekin egindako pipa da, basoan dagoelako. Piparen hostoak gorri kolorekoak dira adierazteko pipa piztuta dagoela. Orduan, ba neskak bere ahoan dauka pipa eta ba berak erabakitzen du erretzea edo ez”.*
  
- **Irakaslea:** *“Orduan zuek piparen objektua erabili duzue berotasun/sentsualtasun horren irudia irudikatzeko?”*
  
- **Ikasleak:** *“Bai, baina nola berarena da pipa, ba berak erabakitzen du zein pertsonarekin egon nahi duen edo ere nori eman nahi dion probatzeko pipa hori”.*



- **Ikasleak:** “Ba guk Ocaren jolasa ipini dugu. De puente a puente y tiro porque me lleva la corriente!”
- **Irakaslea:** “Aiba! Eta zer esan nahi duzue horrekin?”
- **Ikaskideak:** “¡Bua, que mitico La Oca!”
- **Ikasleak:** “Pues ikusten dira bi oinak eta zubia, eta zubiaren azpitik erreka bat dago eta korrientea. Orduan ba pertsona hau erreka jarraitzen du jakin gabe en verdad nora doan, baina nola erreka aurrera doan,ba bera ere erreka bidea jarraitzen du ere”.
- **Irakaslea:** “Beraz, adierazi nahi duzuen da askotan mundu guztiak egiten duen gauza berdina egiten jarraitzen dugula, nahiz eta guk benetan egiten garenaz kontziente ez garen?”
- **Ikasleak:** “Bai, nola jendeak egiten duen, ba guk ere askotan egiten dugu, raritoak ez izateko”.
- **Irakaslea:** “Beraz, uste duzue hau aldatu behar genukeela ezta?”
- **Ikasleak:** “Bai, ze adibidez ni errekreoan ez badut jolastu nahi futbolera, ba ez entzutea besteek esaten didatena.”
- **Ikaskideak:** “Si ez dizu inork ezer esaten!”
- **Irakaslea:** “Bueno, honi buruz nahi baduzue beste ordu batean eztabaidatu dezakegu, orain eurek egindako lanean zentratuko gara, bai?”



- **Ikasleak:** “Badago ume bat, eta gidatu nahi du, baina kotxea apurtuta dauka. Orduan, makina bat bezala garenez, ume hau joan da inpresora 3D batera eta zatitu du bere gorputza eta kotxeari faltatzen zitzaizkion gauzak ipini dizkio funtzionatzeko; ba erretrobisorea adibidez..eta horrela”.
- **Irakaslea:** “Bueno bueno...eta ikusten dudanez, irudi horretan “Tu maquina del tiempo...libre” esaldia ere agertzen da. Nire galdera da: ume hori orduan bere gorputza makina bat izango balitz bezala erabiltzen badu, benetan librea da?”
- **Ikasleak:** “Bai, porque aprobetxatzen da makina bat dela, bere gorputza zatitzeko gero nahi duena egiteko! Dauka como super botere bat, bere gorputza zatitzea. Como Bart adibidez Los Simpsonean, duela bere gorputza estiratzeko boterea eta luzatzen da asko, pues honen kasuan mutiak bere gorputzea nahi duen bezala zatitzeko boterea dauka.”
- **Ikaskideak:** “¿Ya podría eh Pablo?”
- **Irakaslea:** “Ados...ados.”





- **Ikasleak:** “Gu neska honi ipini dizkiogu peinado diferenteak, beti normalean neska izateagatik, eraman behar duzulako ilea luzea. Eta hau ba pertsona berdina da, baina bere bizitzan peinado diferenteak izan ditu nahi izan duelako, baina bera barrutik pertsona berdina izaten jarraitzen du”.
  
- **Irakaslea:** “Beraz, ulertzen dudanagatik emakumearen estereotipoak apurtu nahi izan dituzue, normalean ohituta gaudelako kasu honetan emakumezkoa orrazkera jakin batekin lotzeko, ezta? Aizue, eta zergatik sartu dituzue pertsona horien gorputza zaku modukoetan?”
  
- **Ikasleak:** “Ba fijatzeke bakarrik justo buruan nola jarri diogun ile desberdina.”
  
- **Irakaslea:** “Ah bale, ikuslearen atentzio osoa nolabait orrazkera motan zentratzeko, ezta?”
  
- **Ikasleak:** “Bai.”
  
- **Ikaskideak:** “Pertsona berdina da, baina bere bizitzako etapa desberdinetan!”
  
- **Irakaslea:** “Hori da!”





- **Ikasleak:** “Bada neska baten etxea, eta neska hau irakurtzen egon da. Horregatik utzi ditu bere liburuak bere mahai gainean. Eta orain nola nekatuta dagoenez, siesta bat botako du bere ohean eta musika entzungo du.
- **Ikaskideak:** “Joder, zelako imajinazioa! Eta nola dakigu guk musika entzuten dagoela? Ez gara adibinoak!”
- **Ikasleak:** “Ba bere ohean, dela pentagrama bat, hor daude notak! Horregatik ba orain hor dago etzanda, erlaxatuta eta ez dio inor molestetzen”.
- **Irakaslea:** “Beraz, zuek hemen irudikatu duzue sekuentzia baten eszena edota plano bat, ezta?”
- **Ikasleak:** “Ba bai. Gainera, izango zen istorio oso berezia, ze beitu zelako ohea daukan neska, eta ere beitu ere bera ze txikia den...”
- **Irakaslea:** “Bai bai, hemendik bitxikeri asko atera daitezke. Irudimenak ez dauka mugarik!”

## 8.11. Eskolaren baimena

	<p style="text-align: center;"><b>“VIRGEN NIÑA” IKASTETXEA</b> <a href="http://www.virgennina.com">www.virgennina.com</a></p> <p>C/ Dionisio Aldama, 14 y 16      ☎/fax 945 393544 01470 Amurrio                      ✉ <a href="mailto:info@virgennina.com">info@virgennina.com</a></p>	<p style="text-align: center;"><b>DOC.05</b></p>
<b>CIRCULAR / ZIRKULARRA</b>		
<p>Ariane Sánchez ikaslearen praktikaldiaren tutoreari:</p> <p>Amurrioko Virgen Niña ikastetxeko zuzendariak, ARIANE SANCHEZEK bere gradu amaierako lanerako grabatu zuen bideoan ateratzen diren ikasle guztiek horretarako baimena zutela ziurtatzen du.</p> <p>Betiere, baimena helburu horrekin eta ez besterekin izango delarik eta bere hedapena debekatuta dagoelarik.</p> <p><i>A la atención de la tutora de las prácticas de Ariane Sánchez:</i></p> <p><i>La Dirección del Colegio Virgen Niña de Amurrio certifica que los/as alumnos/as que aparecen en el vídeo que grabó la alumna ARIANE SÁNCHEZ durante su periodo de prácticas en el centro contaban con el permiso correspondiente de los padres para ello. Siempre y cuando dicho vídeo sea utilizado única y exclusivamente como parte de ese trabajo y quedando totalmnte prohibida su difusión y utilización con otros fines</i></p> <p style="text-align: right;">En Amurrio, a 24 de abril de 2018 Amurrión, 2018ko apirilaren 24an</p> <div style="text-align: right;"></div>		

